



## MARCELA LAGARDE

Latinoamerikako  
feminismoaren ikurra

«Zein gutxiengo mailan  
geratuko garen  
paktatzen ari gara  
oraindik emakumeok»



- **Jean Lissar, Berdeen bozeramailea:** «Federalismoaren ideia desonesta da Frantzian»
- **Turkia eta kurduak** Bake prozesua zapuztuta
- **Berdintasuna enpresetan** Parietatea ez da nahikoa
- **Antzerkia** Zergatik den Sarrionandia euskal idazle taularatuen
- **Joaquim Dolz-Mestre, hizkuntzalaria** Nola kudeatu eleaniztasuna hezkuntzan



# **argia** Egutegia 2010 Salgai dagoeneko

## Aurrean

- Jai egunak eta egun seinatuak
- Santuak eta euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

## Atzealdean

- Hausnarketa labor ospetsuak. "Pentsamendu txikiak"

**Egutegia: 8 €**

**Egurrezko taula: 55 € + egutegia opari**

Aurten mahai gaineko  
euskarri berria  
**5 €**



**ESKAERAK:**

943 37 15 45 • [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com) • [www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

**argia**  
[www.argia.com](http://www.argia.com)

- 4 Deabruaren abokatua: Miren Gaztañaga.**  
Aritz Galarraga.

## Pertsonaia

- 10 Marcela Lagarde: "Emakumearen hiritartasuna ez dago behar bezala eraikita".** Miel A. Elustondo.

## Gaiak

- 15 Turkiako bake prozesua. Ilusioa berriz lurperatu zenekoa.** Karlos Zurutuza.

## Iritziak

- 20 Ttakun (h)errenka. Umorea.** Ana Urkiza.  
**21 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.  
**22 Hartzeko pronto emateko tonto.** Iñaki Zubeldia.  
**Ur epela.** Igor Estankona.  
**23 Tobin tasa.** Mikel Zurbano.  
**Arratsalde.** Joxemari Ostolaza.  
**24 Bertso berriak. Falta direnei jarriak.**  
 Alaitz Sarasola.

## Erdiko kaiera

- 28 Txirri, Mirri eta Txiribiton. Irri urratzaileak.**  
 Gorka Bereziartua.  
**30 Liburuak.** Gema Lasarte.  
**31 Diskoak.** Iker Barandiaran.  
**32 Ezpalak.** Jon Torner.  
**33 Abarrak.** Gorka Bereziartua.  
**35 Denbora-pasak.** Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.  
**36 Zientzia.** Joxerra Aizpurua.  
**37 Landareak.** Jakoba Errekondo.  
**38 Denboraren makina.** Nagore Irazustabarrena.

## Termometroa

- 39 Jean Lissar, Berdeen bozeramailea: "Ekologiari buruzko ideia aldatu behar da ekonomia aldatzeko".** Mikel Asurmendi.  
**42 Joaquim Dolz-Mestre: "Hizkuntzaren estatusak eragin betea du ikaskuntzan".** Miel A. Elustondo.  
**46 Bero-beroan.** Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.

## 5 | Berdintasuna enpresan | Nagore Irazustabarrena

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko konpromisoa hartzen duten enpresei ziurtagiria ematen die Emakundek. Helburu hori duten bi enpresatan izan gara, egin dituzten aldaketak gertutik eza-  
gutzeko asmoz.



## 25 | Joseba Sarrionandiaren lanak antzerkian

### Oier Guillan

## 48 | Net Hurbil

### Pello Zubiria

## 50 | Azkena

### Mikel Irizar

## OKERRAK ZUZENTZEN

ARGIAREN 2.209. zenbakian Seaskako ikasle ohiekin egin dako inkesta baten berri eman genuen *Euskal Herriarekin ez, Frantziarekin bai* titulupeko erreportajea. Tituluak eta erreportajearen pasarte batzuek oker adierazten dute Seaskaren txostenak dioena. Esate baterako, "gazteen gehiengoak ez du Iparraldean edo Hegoaldean ikasi edo lan egin nahi, Frantzia baizik", genioen sarreran. Egari zor, Seaskaren lanak argi uzten du bere ikasle ohien gehiengoak Iparraldean bizi eta lan egin nahi duela.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estibx Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaitz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: P.K. 140. 48.100 Mungia. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Iparraldeko Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkia: Dani Blanco.



KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak  
diruz lagundua





• DEABRUAREN ABOKATUA •

## *“Seguru ‘Martina’ zela zuk ikusten zenuen programa?”*

**Miren Gaztañaga | Martina ohia**

Antzerkiola Imaginariotik, ETBn antzerkia imajinatzeraz. Eta etxera buelta atzera, inoiz etxea utzi bazuen.

**ARITZ GALARRAGA**

Argazkia: Iñigo Azkona

**Eskerrik asko elkarrizketa onartzeagatik, Martina... ai, barkatu, Miren...**

Lasai, nahi baduzu Martinak egin ahal du elkarrizketa, baina, ni zu banintz, ez nintzateke ausartuko: ez da isiltzen dakien horietakoa. Esan daiteke ni diplomatikoagoa naizela.

**Imajinatzen dut askotan nahastu zaituztela, ezta? Izan ere, antza izugarria duzue.**

Zergatik diozu? Urre koloreko adats luze eta bular erraldoi hauengatik? Jende askok esan izan digu, bai.

**Hontzarekin etorriko zinela pentsatzen nuen, hala ere.**

Hontza ni baino askoz ere inteligenteagoa da eta etxean geratu da goxo-goxo.

**Hontzak baino, beldur handiagoa ematen dit niri Ander Lipusek.**

Urteekin gaudituko duzu, lasai. Hori bai, bere ondoan egonez gero, kontuz, ze oso kutsakorra da ofizioari dion maitasuna. Nik oraindik ez dut sendatzeko antidotoa aurkitu.

**Metafisikoegia zen zuen saioa.**

Seguru al zaude Martina zela zuk ikusten zenuen programa? 3 urtetik 95 urte bitarteko ikuslegoa izan dugu eta iritziak denetariakoak, baina ulergaitza zela orain arte ez digu inork esan.

**Nola da hori, antzerki independentean hasi eta ETBn bukatzea?**

Bukatu baino, joan-etorrian ibili, ezta? Niri horrek ematen dit bizipoza, leku batetik bestera ibiltzeak, batek gauza batzuk ematen dizkizu eta besteak beste batzuk. Eta horrela zure bidea zein den argitzen zoaz poliki-poliki.

**Tira, azkenean ETBk bukatu du programarekin. Ez esan gobernu berriak duela errua horretan ere...**

Ezin diogu erru guztia gobernu berriari bota. Zaharrak ere bazituen bere altxorrak...

**Orain zer, bizimodu prekariora berri? Esan nahi dut: antzerkira bueltatu zara?**

Kar kar kar! Ez naiz antzerkitik inoiz joan, baina, bai, orain *Cola-caa* baino supermerkaturko marka duen kakao erosten dut.

**Antzerkia omen da aktore guztien diziplina maitteena, baina denek bukatzen duzue telebistan!**

Bi eremu desberdin dira eta zergatik ez biak jorratu? Probatu baino lehen zergatik mugatu behar duzu zure burua? Eta behin probatu eta gero, aukera badago behintzat, bakoitzak erabaki dezala momentuan hoberen datorkiona.

**Goenkale paper bat adibidez, Perurenaren amorrentearena?**

Primeran! Dudarik gabe, erronka litzateke. Eta niri erronka berrien aurrean lanerako gogo sartzen zait! ■

• ASTERO GAIA •

Berdintasuna enpresetan

# Bionborik behar ez izateko lanean

Enpresa pribatuetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna urrun dago oraindik. Baina azken urteotan, EAEko 41 enpresa berdintasunaren aldeko lankidetza erakunde izendatu ditu Emakundek. Enpresetan sartu gara izendapen horren atzean dauden lana eta aurrerapauso praktikoak ikusteko.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Argazkiak: Dani Blanco

Metro Bilbaoko Aginte Toki Nagusian metro linea osoa kontrolatzen da. Ferrokarrilen tradizioetik sortutako enpresaren barruan, erantzukizun handiko lanpostu tekniko hauetan gero eta emakume gehiago ari da lanean.






Goiko irudian, Andoni Begoña, Ipar Kutxan berdintasunaren alde ari den batzordeko beste bi kideekin batera; tartean, Emakundek iaz eman zien ziurtagiria. Ipar Kutxak azken urteotan kontratatutako langileen %75 emakumezkoak dira. Aurretik, enpresa honek defizit handia zuen berdintasunaren alorrean.

BOSTONGO ORKESTRAK ekimen berritzailea jarri zuen abian 1970eko hamarkadan: musikariak kontratatzeko audizio probetan, epai-leen eta musikarien artean bionbo bat jar-tzea erabaki zuten, jotzen ari zena zein sexutakoa zen ikus ez zezaten. Metodoa beste orkestra batzuetan erabiltzen hasi ziren berehala. Hala, 1970ean AEBetako orkestretan %5 eta %10 artean baino ez ziren emakumezkoak; bionboak ipintzen hasi eta hamar urtera, aldiz, %40-50era igo zen portzentajea.

Baina bionboek ez dute balio, esaterako, banku batean edo garraio enpresa batean. Eta gainera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna enpresa pribatu-tuetan ez da portzentajeetara mugatzen.

Emakundek 1994an sortu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakunde izendapena enpresa pribatuentzako eta 1997an Eus-kadiko Kutxari eman zion lehen bereizgarria. Ordutik hona, beste 40 enpresek lortu dute ziurtagiria. Emakundek diru-laguntzak ematen dizkie enpresei diagnosti-koa eta ekintza plana egin dezaten. Orduan lankidetzak erakunde bilakatzen dira, baina izendapenari eusteko plana abian jarri eta urtero hartutako konpromisoen eta lortuta-ko helburuen txostena igorri behar diote Emakunderi.

Enpresa horiek borondatez erabaki dute berdintasunaren aldeko ahalegina egitea, baina Berdintasun Legeak medio (EAEko 2005ean onartu zen eta Espainiakoa 2007an) 250 langiletik gora dituzten enpresa



**Berdintasuna plantila paritarioa izatea baino askoz konplexuagoa da. Zenbait esparrutan emakume gehiago daude lanean, baina horrek ez du esan nahi berdintasuna lortu dutenik**

guztiek abiatu behar dute berdintasun plana. Emakundeko zuzendari Maria Silvestreren hitzetan, “legeak oso mantso betetzen ari dira, eskaera sozialaren aurretik baitoaz. Legitimitate politikoa dute, baina legitimitate soziala falta zaie oraindik”.

Dena den, legeak eragina izan zuen, adibidez, Ipar Kutxan. “Historikoki emakume eta gizonen arteko berdintasunari zego-kionez defizit nabarmena genuela bagenekien, baina ez zen egoera aldatzeko ekintza egituraturik egin” dio Andoni Begoña Ipar Kutxako berdintasunaren alde-ko batzordeko kideak. “2007ko martxoan Berdintasunaren legea indarrean sartzeak bultzada ederra eman zigun, eta aurretik buruan bueltaka geneuzkan asmoak bidera-tzeko. Legeak ezarritako betebeharrak, gure kasuan, aukera bihurtu ziren”. Ipar Kutxa-ren Bilboko bulego nagusian sartu eta ezke-rrean ikus daiteke iaz lortutako Emakunde-ren bereizgarria.

Ipar Kutxa 1966an sortu zen eta egun 93 bulego ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan

banatuta. Guztira 406 langile ari dira banku horretan lanean eta horietatik %31 emakumeak dira. 2007ko bultzada baino lehen, urteak zeramatzen emakumerik kontratatu gabe, baina ordutik hona langile berrien %73 emakumezkoak dira.

Metro Bilbao enpresa, aldiz, legeari aurreratu zitzaion. 1999an ekin zioten berdintasunaren aldeko lanari eta hurrengo urtean eman zion Emakundek ziurtagiria. 1995ean sortu zen Bilboko metroa kudeatzen duen enpresa eta 700 langile inguru ditu gaur egun. Enpresa berria, modernoa, teknologikoa izaki, hasieratik berdintasun irizpideak nagusituko zirela pentsatuko dute askok. Baina berdintasun planaren arduradun Rosa Fernández Villak oso bestelako errealitatea azaleratu digu: “Epe laburrean enpresa martxan jarri ahal izateko, esperientzia biltzea ezinbestekoa zen, eta esperientzia hori ferrokarrilaren sektorean topatu genuen, esparru erabat maskulinoan. Metro Bilbao ezaugarri tradizionalekin jaio zen eta 14 urtetan errealitate sozialera gerturatu behar izan dugu, berdintasunera hurbildu”. Sortu zenean emakumeak langileen %14 ziren eta urte gutxitan %25era iristea lortu dute.

Bi enpresok paritatetik urrun daude oraindik, baina Emakundeko Maria Silvestrek garbi dauka berdintasuna plantila paritarioa izatea baino askoz konplexuagoa dela. Zenbait esparrutan, hala nola supermerkatuetan edo garbiketa enpresetan, gizonetzko baino emakume gahiago daude lanean “baina horrek ez du esan nahi berdintasuna lortu dutenik”.

### Zenbakiak baino gehiago

Diagnostikoak egin eta ekintza planak zehazteko orduan, hainbat alderdi jorratzen dira: aukeratzeko, prozesuak, kontratazioak, prestakuntza, promozioa, ordainsari sistema, lan osasuna, kontziliazioa, enpresaren komunikazioa eta irudia... Eta, ondoren, neurri zehatzak ezartzen dira.

Ipar Kutxan, plana berriki martxan jarri arren, dagoeneko zenbait neurri hartu dituzte. Une honetan kontziliazio ekintzak bete daitezzen ari dira lanean eta giza baliabideen arloarentzat pertsonen kudeaketarako “praktika onen” eskuliburua prestatzen hasi dira.

Bi enpresetan garbi dute langileek parte hartzea, langile guztiek plana barneratzea funtsezkoa dela. Eta berdintasuna gutxi batzuen kezka edo ardura ez dela erakusteko, komunikazioa esparru egokia da. Metro Bilbaoko Rosa Fernándezek dioenez, “hizkuntza esparru aproposa da berdintasunaren lanari ekiteko, denoi baitagokigu”.

### Kontziliazio maltzurra

Lan munduko berdintasunaz aritzean, ezinbestekoa da kontziliazioaz hitz egitea. Lan hau osatzeko solaskide izan ditugunek ez dute zalantzan jartzen kontziliazio neurriak beharrezkoak direnik, baina Emakundeko Maria Silvestrek eta Metro Bilbaoko Rosa Fernándezek hitz berdinak aukeratu dituzte gai honen inguruan jardutean: “Kontziliazio neurriak ondorio maltzurak izaten ari dira emakumeentzat”. Neurri horiek emakumezkoek eskatzen dituzte gehienetan eta beren promozio aukerak eta ordainsariak murriztea izaten da ondorio nagusia.

Ipar Kutxan berdintasunaren aldeko lehen neurrietako bat, hain zuzen, kontziliazioaren ildo da. Baina bankuaren ordutegiak neurri onorio ezkorak apaltzen ditu. Metro Bilbaoren kasua eredugarria da kontziliazioari dagokionez: 50 langilek hartu dituzte neurri horiek eta horietatik 13 gizonetzkoak dira. Paritatetik urrun egon arren, %26ko portzentajea batez-bestekoaren oso gainetik dago. Gainera, “13 gizonetzko horien egoera erabat normalizatu egin da lankideen artean”, dio Fernándezek, “hasieran pentsaezina zen gizonetzkoek kontziliazio neurriak eskatzea”. Horrez gain, Metro Bilbaon lanaldi murriztua duten emakumeek karguan gora egitea lortu dute.

Baina kasu horiek salbuespenak baino ez dira oraindik. Maria Silvestreren aburuz, “kontziliazioa beharrezkoa da, hiritarren eskaera erreala da, baina gizonetzkoek ere barneratu behar dute, hau da, korrespontsabilitatearen alorra landu behar dugu”. Eta kontziliazioa gizonetzko ere bere egitea ez da nahikoa: “Gizonetzkoek gain, enpresek, esparru politikoak eta gizarte guztiak barneratu behar du”. Eta emakumezkoek ere badute erantzukizunik: “Delegatzen jakin behar dugu”. Baina horrek guztiak, neurri zehatzak baino gehiago behar du, aldaketa kultural sakona eskatzen du, denboraren erabilera arrazionalizatzeko eztabaida zabaltzea, esaterako. “Egitura eta eredu asko hautsi behar dira” dio Silvestrek, eta Emakundeko zuzendariak badaki oso konplexua izango dela.

## Ziurtagiriaren jabe

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako lankidetzak erakunde ziurtagiria jaso duten enpresak:

- |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. EUSKADIKO KUTXA (1997)</li> <li>2. VITAL KUTXA (1998)</li> <li>3. GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA (1998)</li> <li>4. METRO BILBAO (2000)</li> <li>5. EDE FUNDazioA(2004)</li> <li>6. BBK (2004)</li> <li>7. ZUBIZARRETA CONSULTING S.L. (2005)</li> <li>8. CDE CONSULTORIA (2005)</li> <li>9. ADOS CONSULTING IKERTADEA(2005)</li> <li>10. ROBOTIKER (2005)</li> <li>11. BULTZ-LAN CONSULTING (2005)</li> <li>12. OPE CONSULTORES (2006)</li> <li>13. EUSKAL TRENBIDE SAREA (2006)</li> <li>14. EROSKI (2006)</li> <li>15. LABEIN (2006)</li> <li>16. LAB (2006)</li> <li>17. ESK (2007)</li> <li>18. EUSKO TREN (2007)</li> <li>19. INVESCO 2000 S.L /DOBLE SENTIDO (2007)</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>20. MIRUGAIN S.L.(2007)</li> <li>21. MURGIBLE S.L. (2007)</li> <li>22. BIC GIPUZKOA BERRILAN (2007)</li> <li>23. CTI-SOFT S.L. (2007)</li> <li>24. ELEKTRA S.A. (2007)</li> <li>25. FUNDACIÓN TEKNIKER (2007)</li> <li>26. FEDERACIÓN SARTU (2007)</li> <li>27. ASOCIACIÓN GOIZTIRI (2007)</li> <li>28. CÁRITAS DIOCESANA DE BILBAO (2007)</li> <li>29. EJIE S.A.(2008)</li> <li>30. CAMPEZO CONSTRUCCIÓN S.A. (2008)</li> <li>31. ELHUYAR-ZUBIZE SLU (2009)</li> <li>32. BEHARGINTZA-TXORIERRI SL (2009)</li> <li>33. Z&amp;B CONSULTORES (2009)</li> <li>34. IPAR KUTXA (2009)</li> <li>35. AGINTZARI (2009)</li> <li>36. SUSPERGINTZA ELKARTEA (2009)</li> <li>37. SAN JOSÉ DE LA MONTAÑA EGOITZA (2009)</li> <li>38. DEUSTO SISTEMAS S.A. (2009)</li> <li>39. INGETEAM TECHNOLOGY (2009)</li> <li>40. REDOX S.A.</li> <li>41. ATE ASESORES DE GESTION S.A.</li> </ol> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

Azken urteetan Metro Bilbaok asko zaintzen du barne nahiz kanpo komunikazioan erabiltzen duen hizkuntza, langileen arteko posta elektronikoetatik hasi eta publizitate testuetaraino. Langileen idazteko ohiturak aldatu behar izan dituzte, batez ere gazte-eraz, euskarak ez baitu generorik. Horretarako, *Metro Bilbaon bizkuntza berdintasunaz erabiltzeko gida* prestatu dute. Liburuxka argitaratu eta banatzeaz gain, “erabili egiten dugu. Argitaratzen ditugun testuen %99an gidako irizpideak erabili direla egiaztatzen dugu”.

Gidak komunikazio grafikoa zaintzeko irizpideak ere ematen ditu. “Beste enpresek metroan egiten duten publizitatea ere zaintzen dugu: diskriminazio estereotipoak ez ditugu onartzen eta gure arauak bete behar dituzte”.

Irudi korporatiboan Ipar Kutzak ere neurriak hartu ditu. Egunotan bankuaren bulegoak emakumezko baten argazkia duten afizez beteta daude, Virginia Berasategi atletaren babesle baitira. Enpresaren webgunean, “lan egin gurekin” atalean ere, emakume baten argazkia ipini dute.

Horrez gain, bi enpresak kanpainak egin ten hasi dira martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko ekitaldien kariatara.

### Nor kontratatu? Nor promozionatu?

Esan bezala, berdintasuna ez da soilik porzentaje kontua. Emakundeko zuzendarien iritziz, “emakumezkoek enpresaren alor guztietan egon behar dute, batez ere, erabakiguneetan”.

Ipar Kutzarentzat erronka gaitza zen hau, orain dela hiru urte emakume bakarra baitzuten ardurazko karguetan. “Oraindik ere emakumeen partaidetza kargu garrantzitsuetan eskasa den arren, azken urteotan Artekartza Kontseiluan eta Zuzendaritza Batzordean emakume bana ari dira eta beste 18 emakume daude bulego eta departamentu arduradun lanean.

Nahiz eta parekotasunetik urrun egon, egoera nabarmen aldatu dela adierazten du horrek”.

Metro Bilbaon ere egoerak hobera egin duenaren adibide da Rosa Fernández bera, duela urtebete zuzendaritzako postu bat lortu baitzuen. Hala ere, Fernándezena salbuespena ez dela frogatzeko, Metro Bibaoko Aginte Toki Nagusira jaitsi gara: edozein instalazioren gainean berehala jarduteko ahalmena duten sistemen multzoa da ATN, hau da, Biboko metroaren kudeaketa bertan zentralizatuta dago. Ardura handiko lanpostu teknikoak dira, tradizioz gizonezkoen esku

**Berdintasun irizpideak ondorio positiboak ditu produktibitatean. Enpresarien diskurtsoa ekonomikoa izanik, horren bidez errazago konbentzitu ahalgo zaie**



egon direnak, baina, dozenaka pantaila eta espaziontzietakoak diruditen tresnen artean, gizon adina emakume ikusi dugu lanean.

Langile berriak kontratatzerakoan edo aurretik lanean zeudenak karguz igotzeko berdintasun irizpideak erabiltzen direla bermatzeko, aukeraketa prozesuek zehatzak eta garbiak izan behar dute. Rosa Fernandezek irizpide horiei azkeneraino eutsi behar zaiela dio, baita kontziliazio neurriak tartean direnean ere: “Promoziorako aukeraketa proze-

**Rosa Fernández,**  
Metro Bilbaoko  
zuzendaritzako  
kidea eta  
berdintasunaren  
aldeko planaren  
arduraduna.

suaren amaieran, demagun lau hautagai dituzula eta horietako bat lanaldi murritzua duen emakumea dela. Oso erraza da hura baztertzeta. Prozesu guztian garbi jokatu duzu, diskriminaziorik gabe, baina amaieran osagai kultural horrek bultzatzen zaitzake pertsona hori baztertzera. Eta hain zuzen osagai kultural hori aldatzea da zailena. Bada, horretan kontu handia izan dugu. Hautagai hoberena baldin bada, aurrera!”.

### Berdintasunaren eta produktibitatearen alde

Emakundeko zuzendariak plan hauekiko astetasun maila, oro har, oso handia dela esan digu. Eta Andoni Begoñak Ipar Kutxan behintzat hala dela baieztatu digu: “Planak oso harrera ona izan du, defizit egoera nabarmena zelako. Gainera, aurten egindako asetahun edo klima inkestan Ipar Kutxako emakumeak gizonak baino gusturago ari direla esan digute emaitzek. Beraz, norabide egokian ari garen seinale izango da”.

“Berdintasunaren diskurtsoa oso positiboa da”, dio Maria Silvestrek, “baina enpresetan ez dugu soilik berdintasunaren diskurtsoarekin sartu behar. Diskurtso ekonomikoa ere erabili behar da: kontratazioan eta promozioan berdintasun irizpideak erabiltzeak ondorio positiboak ditu produktibitatean, zuzenean eragin positiboa baitu langileen asetahun mailan. Eta datuek egiaztatzen dute hori. Azkenean enpresariaren diskurtsoa ekonomikoa da eta, horren bidez, errazago konbentzitzeko ditugu”.

Enpresetan neurri zehatzak, praktikoak ezartzen ari direla ikusi dugu, baina Rosa Fernandezek zioen moduan, zailena kultura, pentsakera, ohiturak aldatzea da.

Metro Bilbao, Ipar Kutxa eta beste 39 enpresa behintzat berdintasunaren aldeko bidea urratzen hasi dira, aurretik oraindik bide luzea dutela jakitun, eta emakumeak eta gizonak berdin baloratzeko bionboak beharrezkoak izango ez diren gizartea helburu. ■

gure!  
arteak!  
euskaraz



# «Emakumearen hiritartasuna ez dago behar bezala eraikita»

Feminismoak nazioartean duen lehen mailako pentsalarietakoa da Marcela Lagarde. Hegazkinetik ilunabarrean jaitsi, hotelera sartu, puskak gelara jaso, jaitsi eta ARGIArekin hitz egin zuen. Afari legea eta lotara zen. Emakume taldeekin bilerak zituen biharamunean. Elkartasunaz. Edota Marcela Lagardek berariaz asmatu duenez, “ahizpatasunaz”.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Egunkaria hartu dizut gaur goizean. Azalean ziren giza irudien artean, hamar nituen gizonezko, bakarra emakumezko. Bederatzigarren orrialdean baino ez dut ikusi emakumezkoa protagonista: genero indarkeria kasua zen. Hori dugu benetako mundua, ala haren errepresentazio nola-halako bat besterik ez?

Hara, errepresentazioak munduaren parte dira. Zuk dakarkidazuna ere, horixe da, parte bat. Jakina, oso ohikoa, zabaldua, emakumearen irudi eskasia hori esan nahi dut. Hala ohi da kultur, politika, kirol, zientzia eta gisako aldizkari eta agerkarietan. Aldiz, bestela da pertsonak –izan gizon, izan emakume–, gauzaki egiten dituzten aldizkarietan. Hor bai, hor emakume asko baino gehiago dago. Jo ezazu, adibidez, Espainian aurrerakoia omen den *El País* egunkarira, jo iragarki orrialdeetara, han bai, han asko baino gehiago dira emakumeak. Beraz, arlo batzuetan asko dira emakumeak eta haien errepresentazioak; beste batzuetan, aldiz, zero. Eta, horrekin batera, gorputzak edota gorputz zatiak lehenengo orrialdera ekartzen dituzten aldizkariak dituzu. Ikuspegiak dira, emakumeak gizartearen duen espazioaren ikuspegiak, baina partzialak betiere. Horixe da arazorik larriena.

Ikuspegi partzial horrek ez ote du haren araberrako mundu ikuskera jakin bat sorrarazten gure baitan?

Jakina, munduaren ikuspegi zatikatua erakusten badigute, halaxe egituratuko dugu geuk ere. Baina ikasia dugu errealitatea beste era batera

aztertzen, hau da, geure ideologiaren, kulturen, historiaren eta egunero barneratzen ditugun kultur jakien arabera. Baina bai, hedabi-

**“Oraindik horretan ari gara emakumeok, zein gutxiengo mailan geratuko garen paktatzen! Eta oso latza da, oso”**

## Nortasun agiria

Maria Marcela Lagarde y de los Rios (Mexiko Hiria, 1948). Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko katedradun, antropologo, ikertzaile, militante, politikari... Latinoamerikako feminismoaren izenik inportanteenetakoa, hainbat eta hainbat lan idatziak ditu generoaz, feminismoaz, emakumeen demokraziaz eta botere hartzeaz. 2003an PRD Iraultza Demokratikoaren Alderdiaren zerrendetan aurkeztu zen –nahiz eta independente–, hautatu ere zuten, eta Kongresu Federaletako diputatu izan zen 2006 arte. Emakumeen fabore nabarmendu zen Lagarde legealdian. Feminizidio hitza asmatu zuen Ciudad Juarezeko egoera deskribatzeko, hura aztertzeko ikerketa zuzendu zuen, eta lortu ere zuen feminizidioa delitutzat hartua izatea 2007ko otsailaren 2tik hona. Ezaguna da beraren doktorego tesia: *Los cautiverios de las mujeres: madresposas, monjas, putas, presas y locas* (Emakumeen gatibutasunak: amaemazteak, mojak, putak, presoak eta eroak), gizarte patriarkalean emakumeek jasaten duten zapalkuntza era askotarikoa aztertzen duen liburua.

• P E R T S O N A I A •

Marcela  
Lagarde



deak, zer esanik ez dago, guztiz inportanteak dira, errealitatearen ikuspegi bat eraikitzen dute eta. Ikuspegi horrek, bestalde, indar handia du, irudimenezkoa delako, testuaren, irudiaren eta ahotsaren laguntzaz bestelako dimentsio batera heltzen delako. Fenomenoa miragarria da, nahiz eta edukia penagarria izan, erotzekoa da eta. Horrek ez digu gizon-emakumeoi elkarrengana biltzen uzten, ezta elkar ezagutzen ere, este-reotipoz betetako edukia da eta.

### **Eduki horiek nahitara sortu eta erakusten dizkigute?**

Jakina, bada, nahitara sortzen dizkigutela! Intentzio osokoak dira. Hemen, hedabideek erabakitzen dute zer argitaratu, noiz, non eta nola. Jo dezagun telebistan bertan ere: guk ez bestek erabakitzen du —dela heriotza baten kasuan, edo itsasontzi baten bahiketarenean—, zer eta nola zabaldu albistea, gure baitan halako eta halako interpretazio eta ustea ezartzeko... Izugarria da errepresentazio horiek duten eragina! Izugarria!

### **Intentzio osoz ageri dira emakumeen erre-presentazioak ere? Intentzio txarrez, behar-bada?**

Haietarik asko bai, ikuspegi urri murrizta delako, bai emakumeari eta bai gizonari dagokionean ere, maila sinbolikoan behintzat. Halarik ere, misoginia karga handia dute, eta azal-haragizko emakumeak balio-gabetzera jotzen du; emakumea ez ezik, emakumeak. Aldi berean, gizona —gizon oro eta maskulino den oro—, nagusitasun mailan jartzen du. Egunkaria ekarri duzunez, begira haiek zenbat espazio eskaintzen dioten gizonak jokatzen dituzten kirolei. Joko eta jolasak egiten dituzte gizonak, gerra egiten dute, politika, ekonomia jasangarriari buruzko legeak... edota, nire herrialde Mexikon bezala, emakumeei erabakitze eskubidea ukatzeko legeak egiten dituzte. Penagarria da, zinez! Hedabideek tarte handia eskaintzen diote gizonak egin nahi duten horri, haien interes, jakin-min eta gainerako eginkizunei. Batzuetan sortzaile, besteetan ludiko eta artistiko... Besteetan suntsitzaile; nola den gerra.

### **Joko eta jolas egiten dute gizonak. Zer egiten dute bitartean emakumeek?**

Emakumeek lan egiten dugu lur honetan. Munduko alde gehienetan, egun osoz jarduten dugu lanean. Are gehiago, hegazkinetik jaitsi eta lanean segitzen dugu, deskantsatzen dugu eta lanean segitzen dugu. Ikaragarria da, emakumeek lan asko egiten dugu, beti lanean. Interesgarria da oso, eta antropologo



## **Genero indarkeria**

“Genero indarkeriaren kontrako borroka lehentasunezkoa izan behar da gaur egungo emakumeen kontzientzia politikoan, lehentasunezkoa herrialde bakoitzeko agenda demokratikoan eta, halaber, munduan. Emakume izateagatik bakarrik nozitzen du genero indarkeria emakumeak, nahiz eta haren barruan beste indarkeria asko ere sintetizatzen diren, nola diren sexu indarkeria, biolentzia misoginoa, eta beste bortxakeria era asko: gizarte mailakoa, arrazakoa, ideologikoa, erlijiosoa, identitarioa, politikoa...”

naizenez diotsut. Gazterik, jolas ludikoan jarduteko tarteak du emakumeak. Baina, las-ter, desagertu egiten da hori eta lan domesti-ko, komunitario, pribatuak hartzen du ema-kumearen denbora guztia: denbora guztia lanean ari gara emakumeak! Eta sakelako telefonoaren aro honetan, ez dugu intimitate tarte txiki bat ezertarako! Beste batzuetan, emakumeak elkarrekin biltzen dira, gober-natzeaz hitz egiteko, egoera hau iraultzen saiatzeko, antolatzeko, ekintza zibilak egite-ko, ekintza politikoak, eta, azken finean, gure hiritartasuna errebindikatzeko. Ikaragarria da pentsatzea hasiberriak garela horretan, Latinoamerikan ez ezik, hemen Europan, emakumearen hiritartasuna ez dago eta behar bezala eraikita. Horregatik biltzen gara, bizian hainbat orduz, gure lekua toki guztietan dagoela asmatzeko, konbentzitze-ko, argumentatzeko. Eta toki guztietan ez bada, nahi dugun toki guztietan behintzat egon nahi dugula adierazteko, bizitza publi-ko, politiko eta pribatuaren egon nahi dugula esateko. Beste era batera egon. Beste modu batera partekatu behar dugu mundua gizon-emakumeok. Hori da nire nahia, eta beste askorena; zenbait gizonena, besteak beste.

**Emakumeek bere aldetik egin behar dute lan beren helburuen bila, ala ondoan izan behar dituzte gizonak?**

Historiaren bidez erantzungo nizuke. Gauza asko kanpotik inposatu dizkigute; ez gizonak ez emakumeok erabaki gabe, esan nahi dut. Kasu horietan, gizartearen, ekonomiaren eta politikaren egitura aldaketak izan dira eragi-le. Beste zenbait aldaketa, berriz, geuk eragin ditugu. Ni, esaterako, emakumeek borroka handia egin duten tradizioa naiz. Borroka egin dute, hainbat eta hainbat aldaketa gerta daitezen, eta gizonekin batera jardun dute. Hor dira berdintasunaren alde lan egiten duten gizonak, gizon inportanteak, batzuk sozialistak, beste batzuk liberalak, anarkis-tak, komunistak... utopia horietan sinetsi dutenak, emakumea ondoan ikusi dutenak. Era berean, emakumeak ere bere gisa saiatu dira, gizonen gogoaren kontra ere bai, asko-tan. Zera datorkit, adibidez, Ingalaterrako parlamentuan katez loturiko emakume haiek, emakumearentzako boto eskubidea aldarrikatu zutenak. Gizonen borondatearen kontra ez ezik, haien erakundeetan bertan ari ziren borrokan. Borroka horiek aldebaka-rrak izan dira kasurik gehienetan, eta, azke-nean, ekintza, protesta, proposamen eta bes-telako askoren bidez lortu da helburua, lortu denean, alegia. Izan ere, oraindik ez dugu lortu lehenengo emakume borrokalari haiek, sufragista haiek aldarrikatzen zutena. Ez dugu lortu. Sufragioaren zikloa ere ez dugu

## Ahizpatasuna

“Frantziako Iraultzak ‘anaitasuna’ zabaldu zuen modu berean, ‘ahizpatasuna’ aldarrikatzen dut nik: bizitza publikoan merezi duen aitortza izan dezan, emakumeen batasunari dagokio ahizpatasuna: emakumeen bilkura, alternatiba bat osatzeko asmoa duena, emakume bakoitzaren bizitza antzaldatzeko lagungarri izango dena. Genero kondizionamenduak eraldatzea esan nahi du ahizpatasunak. Genero kontzientziarik gabe ezin identitate positiborik eraiki. Genero kontzientzia nahitaezkoa da emakumeak duen botere eza gainditzeko eta elkartasun espazioak sortzeko”.

bukatu mundu ustez demokratiko honetan ere. Hori ere ez dugu! Beraz, gauzak asma-tzea dagokigu, legeak egin, herrialde askotan gizonak oraindik dituzten botere eta pribile-gio handiak murriztu... “Eta gainera, kexatu egiten dira! Zer beste nahi dute?” diote.

**Diote, gizonak, emakumeek ari, ala?**

Bai. Gu bestelako gobernu politikak egiten saiatzen gara, giza eskubideak errespetat die-zazkiguten. Adibidez, emakumeen hiritarta-suna lortzeko. Paktuak egin beharra dago, zein gutxiengo mailan geratuko garen eraba-kitzeko. Oraindik horretan ari gara emaku-meok, zein gutxiengo mailan geratuko garen paktatzen! Eta oso latza da, oso.

**Zergatik da beharrezko enpoderamentua, zuk aldarrikatzen duzun emakumeen botere har-tzea?**

Giza talde bat mendearen egon izanak ondo-rioak dakartzkio harixe. Menderatuak dira, eta mendetasun sisteman bizitzen ikasi behar du, ikasi behar dugu, eta horretarako, zenbait gaitasun garatu beharrean izaten gara, nola diren obedientzia, menpekotasu-na, giza marjinaltasuna... Horiek denak bar-neratu egiten dira, mendekoari kalte larriak eraginez. Enpoderamentua, berriz, mende-kotasun egoeran bizi direnek ere bestelako gaitasunak gara ditzaten sortu dugu, egoera aldatzeko helburuarekin. Alegia, kontua ez da libre izan arte zain egotea “Aizu, ni ere banaiz!” esateko, baizik eta egoera horretan ere “Aizu, ni ere banaiz!” esatea. Egoerari aurre egitea, duintasunez.

**Nor bere gisa?**

Ez nor bere gisa bakarrik. Saiatzen gara bes-tela ere. Guk denok arakatze-lan asko egin ditugu, indibidualak, taldekakoak, kolektibo-ak... Horretan ari gara etengabe, diskrimi-nazioak gure baitan eragin dituen kalte larriez osatzeko asmotan. Genero diskrimi-nazioak ikaragarriko kaltea egin digu-eta, sexuan oinarritutako diskriminazioak, alegia. Bigarren mailako hiritarrak izan beharra! Nekatuta gaude bi halako lan egin behar izat-en, hiru halako idazten, lau halako pentsat-zen... aintzakotzat hartuak izateko moduko unibertsitateko irakasleak edo pentsalariak izateko!

**Antropologoa zaitugu, hamaika pentsatu eta idatzitakoa, eta politikari ere jardun zenuen Mexikon, diputatu, 2003-2006 bitartean.**

Eta oso gogorra izan zen diputatu izatea, nire kontzientzia, eta askoren kontzien-tzia, berdintasun asmoa izanda jardutea. Baina, benetan, ez gaude berdintasun egoe-ran eta, hortaz, emakumeak %22 ginela

## OFF THE RECORD

### ASKE IZAN NAHI DUT

zure ondoan,  
espetxe hotza eta bakardadea,  
bizi izan ditudan urte guztien  
ondoren,  
zugandik urrun egin nahi dut hegan,  
nire hegoekin egin ere.  
Bizitzaren muturrean lapurtutako  
urteak,  
eta ni bazter batean.  
Itsasoek gainezka egin dute nire  
malkoekin,  
baina aski da.

Orain ni biziko naiz.  
Ez dut atzera egingo.  
Berriz hasi nahi dut,  
aske izan nahi dut.  
Olatu batek bezala jo zenuen nire  
bihotza,  
baina egonarri handiko pertsona  
nauzu,  
eta nire egin nituen zure ametsak.  
Nire artean, dena aldatuko zela  
esaten nuen.  
Orain ispluari begiratzen diot,

nahigabeturik,  
denboraren seinaleak neurtzeko.  
Nire bizitzaren zatiren bat  
aurkitu behar dut nonbait.  
Orain ni biziko naiz.  
Ez dut atzera egingo.  
Berriz hasi nahi dut,  
aske izan nahi dut.

Haris Alexiou / Iñaki Frieria,  
*Zureak egin du* (Susa, 2009)



## Feminizidioa

“Mexikon, diputatuen ganbarako kide nintzenean, feminizidioa delitutzat hartzeko lege-xedapenak onartzeko proposamenak egin nituen. Feminizidioa estatu krimena da, hala gerra garaian nola bake aldian gertatzen da. Emakumearen kontrako gorrotozko krimenak dira feminizidioak, krimen misoginoak, eta gizarte eta estatu tolerantziarengatik gertatzen dira. Zuzenbide estatu behar bezalako bat ez dagoenean besterik ezin da irudikatu mugarik gabeko biolentzia hori, zigorrak gabeko hilketak eta, oro har, zigorgabetasuna laguntzea”.

parlamentuan aritzea ez zen batere erraza. Ez ginen %30 izatera ere iristen, nazioarteko hitzarmenak ehuneko horixe aholkatzen duenean, gutxienez, emakumearen parte-hartzea politikan ziurtatze aldera. Mexikon ez genuen besterik, eta, oraindik, %50 eta %50 ditugula esanez ari gara, baina ez da egia. Gutxiengo ginen, eta gutxiengotik jardunda, nola azaldu gauzak inork entzun zaitzan? Nola jardun inor konbentzi dezazun? Hain zuzen gehiengoan diren haien bote-rea murriztu behar dela esanez ari zara-eta! Botere handi horretaz neurrigabe baliatzen ari direla salatzen ari zara!

### Nola moldatu zinen?

Asko saiatuta, eta abildade eta bitarteko asko garatuta, bestela ez dago modurik eta. Eta estudiatu eta ikasi eta beste emakume askorekin ideiak partekatuta. Eta gizonengandik ere ikasita, egiten dituzten gauzak zergatik egiten dituzten horrela ulertu nahian, eta egin nahi ez ditugunak haiengandik ez ikasten, eta denbora guztian horretan egoten, “hara hor beste bat!” bezala begiratzen zaituztela jakinaren gainean, “hara hor beste bat!”.

### Gainkarga da hori, ordea. Estres gehigarria.

Emakumeak beti gara horretan, beti ari dira gu aztertzen: ala begiradarekin larrubizitzen gaituzte, ala begiradarekin larrubizitzen gaituzte. Ez dago besterik, beti da bat bera. Horrela da, eta kito. ■

• Turkiako bake prozesua •

# Ilusioa berriz lurperatu zenekoa

Turkiar eta kurduen artean inoiz ikusi gabeko urratsak eman ziren bakea lortzeko 2009an. Baina abenduan herio-kolpea jasan ondoren, prozesuak hila dirudi sartu berri den 2010ean.



PKK-ko gerlariak Irak eta Turkiaren arteko muga zeharkatu ondoren, joan den urrian.

KARLOS ZURUTUZA

“BAKEA LORTZEKO inoizko aukerarik onena galdu dugu”, entzun da kurdu askoren ahotatik azken asteotan. Nagusiki, bi gertakizunek eten dute negoziazioaren lehenengo urratsak: batetik, PKK-k (Kurdistango Langileen Alderdia), aldebakarreko su-etena hautsi (berak soilik errespetatutakoa) eta zazpi turkiar soldadu akabatu zituen abendu hasieran; egun gutxira, Turkiako Auzitegi Gorenak DTP (Gizarte Demokratikoaren Alderdia) koalizio kurdua ilegalizatzea erabaki zuen, Espainiako alderdi-legeari jarraituz (Ankara *dixit*). Bosgarren aldiz indarga-

betzen zen alderdi kurdu bat Turkiako parlamentarismoaren 80 urteko historian. Aurreko aldietan zoritxarreko erabakia bazen, oraingo honetan askoz ere kolpe handiagoa zekarren ebazpen judizialak, Ankara eta bere menpeko kurduen arteko akordioa ez baitzen inoiz hain gertu egon.

Kurduen auzia lehenbiziko aldiz izan da eztabaidagai joan zaigun 2009an. Istiluak istilu, kurduak baikor begiratzen zioten etorkizunari. Detail txiki bat: DTP alderdiaren bulego bat irekitzeaz zegoen... Washingtonen! Eta honek zera esan nahi zuen,



Abdullah Öcalanen aldeko manifestaldi bat Ipar Kurdistanen.

KARLOS ZURUTUZA

“lagun amerikarra” atzetik ari zela prozesuaren nondik norakoak ikuskatzen, eta uste baino gehiago bultzatzen. Sobiet Batasuneko mugan, Turkia aliatu garrantzitsua zen Gerra Hotzaren garaian; egun, ordea, Ekialde Hurbila baretzeko “giltza” dugu Anadoliar herrialdea. Ez dezagun ahaztu mende-baldean Grezia eta Bulgariarekin muga izan ez ezik, Siria, Irak, Iran, Georgia eta Armeniarekin topo egiten duela turkiar inperioak ekialdean. Eta ez dezagun ahaztu kurduak mugako eremu hartan bizi direla edo, hobeto esanda, marra kolonial horiek Kurdistan lau zatitan banatzen dutela egun. Funtsean, Turkia ez ezik, Ekialde Hurbila ere baketzen lagun zezakeen prozesua hil berri da.

### Udaberri gorria

Porrot honen klabeak ulertzeko denboran atzerantz jo beharra dugu, baina ez gehiegi. 2009ko martxoan, udal hauteskundeak izan ziren Turkian. Gobernuaren aldetik makina bat trikimailu salatu arren –hauteskundeak aurretik eta, batez ere, egun berean–, DTP alderdi kurdua nagusi atera zen Ipar Kurdistanen, ia 2,5 milioi bozen indarrak. Turkiako lehen ministro Erdoganek “auzi kurdua konpontzea” hitz eman zuen 2005eko hau-

teskundeetan. Diskurtso hark berebiziko eragina izan zuen eta AKP Gobernuak alderdiari sekulako babesa eman zioten kurduak orduan. Baina lau urte nahikoa denbora izan zuten kurduak aurrerapenik ez zela gauzatu jabetzeko. Kurduen erantzuna martxoako hauteskundeetako DTPren gorakada itzela izan zen; ordaina, apirileko ehunka atxiloteta, hain zen handia Erdogan haserrearekin.

**DTP alderdia, bulegoa irekitzear zegoen Washingtonen. Alegia, “lagun amerikarra” atzetik ari zela prozesuaren nondik norakoak ikuskatzen eta uste baino gehiago bultzatzen**

### “Öcalanek plan bat dauka”

Bakea lortzeko bigarren aukera Imraliko irla-espetsxean jaio zen. Bertan preso dagoen PKK-ko agintari Abdullah Öcalanek bake-proposamen bat zuela iragarri zuen bere abokatuen bidez. Haren hitzetan, posible zen turkiar eta kurduen arteko bakea lortzea, “Turkiako Estatuaren mugak hautsi gabe”. Horretarako pausoak argi jasota eiz zeuden kartzelan idatzitako 160 orriko dokumentuan. Gerrillako buruzagiak zioen ekainean helarazi ziola Ankarako Gobernuari *Yol Haritasi* (bide orria turkieraz) izeneko txostena. Baina asteak igaro arren, Erdoganek ez zuen jakitera ematen Öcalanen proposamena. Irailean argitaratu zituzten presoaren abokatuek *Yol Haritasi*-ren oinarritzko zutabeak, funtsean, hizkuntz eta kultur eskubideak, Konstituzioaren berri-

## Ejertzitza, "Errepublikak laikoaren zaindaria"

PKK-k apirilean aldebakarreko su-etena aldarrikatu arren, turkiar ejertzitzaok gerlarien kontrako bonbardaketak eutsi die 2009 osoan zehar. Edonola, operazio militarrek ez dira, inondik ere, instituzio militarren esku-hartze bakarrak Turkian.

AEBetakoaren atzetik, NATOko boteretsuena da Turkiako ejertzitza, 500.000 soldadurekin. Baina indar militar erraldoia ez ezik, Estatuaren osagai nagusienera ere bada turkiar ejertzitza. Instituzio militarra "laizismoaren zaindaria" da legez; ez da harriztekoa, beraz, Gobernuak dagoen AKP alderdi islamistarekin sortutako desadostasunak. Turkiar Errepublika 1923an sortu zen eta hamaika presidentetarik, sei militar ohiak izan dira. Aldi berean, 80 urteko epean bost estatu-kolpe mota jasan ditu Turkiak. Egun indarrean duen konstituzioa, 1980ko estatu-kolpea eta gero idatzi zuten militarrek. Euren azken parte-hartze politikoa 2007an izan zen, Estatu Nagusiak AKPri presidentetarako bere hautagaia ez hartzeko "abisatu" zionean. Urte berean, Istanbulgo *Nokta* egunkariak almirante baten dokumentu batzuk argitaratu zituen. Horietan,

huts egindako militarren bi estatu-kolperen saiakera jasotzen ziren, 2003an eta 2004an, hain zuzen.

2007an ere *Ergenekon* sarea estalgabetu zuen Gobernuak, "gerra zikinean" urtetan murgildutako militar, politikari, epaile eta kriminalen arteko sarea. Milaka disidente eta herritar xume (kurduak gehienak) erail ditu *Ergenekon*ek. Egia da Erdoganen Gobernuak sare horretako hainbat kide atxilotu zituela, baina asko kargurik gabe askatu dituzte berriki. Askoren ustetan, horixe izan da militarren "diskretzioa"ren ordaina kurduen auzia eztabaidagai izan den bitartean.



KCK

Turkiar ejertzitzaoren koartelean harturiko irudia.

dazketa, Turkiaren demokratizazioa eta udal mailako autonomia. Kurduentzat ez ezik, turkiarrentzako egitasmoa ere bazelakoan zegoen Öcalan.

### Ankararen erantzuna

Azaroan, Ankarak bere proposamen propioarekin erantzun zuen. "Askatasuna denontzat", zioen Gobernuak Turkiako Parlamentuan aurkeztutako proposamenak. "Ekimen kurdua" izenaz ezagunak, toponimo kurduak berreskuratzea zuen helburu, bai eta herri honen hizkuntza eta kultur eskubideak ere. Tortura salaketak gertutik aztertzearen aldekoa zen ekimen kurdua. Aza-

lean behintzat, Öcalan eta Erdoganen proposamen biak bat zetozen hainbat puntutan; hots, kurduen kultur eskubideak bermatzean.

Turkiako oposizio laiko eta ultranazionalista kexu zen, Gobernuaren proposamenak Turkiar Estatua hautsiko zuelakoan. Kurduak, ordea, "hitz on bezain faltsu"tzat jo zituzten Ankararenak. DTPko buruzagiek makina bat aldiz errepikatu zuten: "Gobernuaren hitz onak egia bilakatuz gero, PKK-k borroka armatuari hiru hilabeteren buruan utziko dio". Nolanahi, gehiegi itxarotekotan, turkiar eta kurduen arteko gerra bere gordintasunean berriz nozituko



DTPren hauteskunde kanpaina arrakastatsua ospatzen.

zela abisatzen zuen Öcalanek Imraliko pre-sondegitik.

Gobernuaren keinuetako bat Öcalanen hamar urteko isolamendua haustea izan zen. Aldi berean, espetxe-baldintzak hobetu zituen Erdoganaren administrazioak.

Baina deigarria zen oso ejertzitoaren erantzun isila. “Errepublikaren zaindaria” mutu... Ezta komunikatu xume bat ere euren web orrian. Egia da Qandilen (PKKk kontrolatutako mendi eremuan) bonbardaketek jarraitzen zutela, “terrorismoaren kontra”ko betiko borrokan zihardutela militarrek. Baina Gobernuaren planaren gainean adierazpenik ez izateak alarma batzuk piztu zituen. PKKrekin hitz egiten ari ote zen jada?

Askorentzat, urriaren 19an gertatutakoa horren froga garbia izan zen. Errefuxiatu eta gerlarien arteko talde misto batek Hego eta Ipar Kurdistanen arteko muga zeharkatu zuen egun hartan. Turkia eta Irak arteko

lurreko pasabide bakarra ejertzitoak nahiz poliziak zorrotz kontrolatutakoa bada ere, denak aske gelditu ziren. Eta hori Silopin (Turkiako mugako herrian) bertaratu ziren milaka lagun harrera jaso eta gero. Benetan sinesgaitza ejertzitoaren jarrera, bai horixe!

### Eta orain zer?

Joan zen abenduan DTP alderdia ilegalizatzarekin bat, BDP (Bakea eta Demokrasiaren Alderdia) koalizio berria atera zen plazara. Erdoganek behin eta berriz azaldu du kurdien

aldeko hobekuntzak bultzatzen jarraituko zuela eta, nahi izanez gero, BDPA balizko solaskidea izan zitekeen. Baina abenduaren 24an azkeneko atekada eman zion Ankarak negoziatioari: DTP “zaharreko” eta BDP berriko 81 lagun atxilotu zituen poliziak, bederatzi alkate barne: bake prozesuan solaskidearen ahotsa amatatu ez ezik, geroan izan zitekeenarena ere isildu du Ankarak.

Ankarak “terrorismoaren kontrako” diskurtsoari eusten dio, burugogor. Bitartean, BDP alderdiak amaitutzat jo du “ekimen kurdua” eta krisi eta kaos egoera “biziki okertuko dela” salatu du; areago, “Turkian ez ezik, Ekialde Hurbil osoan nozituko da ezegonkortasuna”.

“Auzi kurdua konpondu, baina kurduekin kontatu gabe”, horixe dirudi Ankararen “bakerako” leloak. Mendietan, ordea, PKK-k urteko balantzea atera du jada: 800 gerlari berri 2009an. Urte zaila izango da 2010a Anatoliako kurduentzat. ■



# TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

**Talleres Mitxelena, S.Coop.**

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)



*Jaso euskal kultura  
egunero 10 albistetan*



*Harpidetza doan e-postaz  
Dagoeneko 2.500 harpidedun*

*hari@*

*euskal kulturaren buletinak 10 urte*

*Harpidetu zaitez:*

*[www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)*

 **argia.com**



## Umorea



abonetako opor txikien aurreko zenbakian Katixak agur esan zigun eta bere azken hitz haietatik, beste gauza askoren artean, ideiatxo bat erreskatatu nuen: hiru ttakunkideon artean, mezu baikorrenak adierazten zituen zela zioen edo eta alaitasun gehien oparitzen saiatzen zena. Padronen eta nire mezuak serioagoak direla-edo esaten zuela uler zitekeen.

Bada, gaurkoan, garaiak ere hala eskatzen duelako, baikortasun hutsez idazten saiatuko naiz, batez ere, hurrengo ttakunkideari ongietorria emateko eta erdaraz esaten den bezala, “oin onarekin” gure artera dadila desio diodala adierazteko.

Ez da, hala ere, erraza, begiak itxita idaztea. Zeren eta begiak itxi ezean, hausnarketa gutxiengo batera garamatzen edozein gai ukituta ere, ez noa esatera baikortasun orok ihes egiten dizunik lurruna bailitzan, baina bai, kritikatik hurbilago leudekeen irakurketek betetzen dizutela lumaren ibilia.

Inuzente Eguna da lerro hauek idazten ari naizenekoa. ARGIAko irakurleek zenbakia urte berriarekin jaso dezaten, urte zaharreko egun xelebre honetan dihardut idazten.

Lehen, orain baino areago, Inuzente Eguna gure sormen eta umore ahalmena adierazteko eguna zen. Eta bizkarrean folio zurian moztutako gizontxo hanka eta esku irekiak izaten ziren egunari amaiera emateko erabiltzen genituenak. Hori zen, jada, eguna biribiltzeko azken “traka”. Orain, aisialdiko begiraleek esan dezatela, gizontxo horiek ez ote diren egunari hasiera emateko ume eta gaztetxoek marrazten dituzten lehen eta azken irudiak. Urte bukaerako txanpaina mahatsetan busitzea bezain ohikoa egin zaigu jada, instituzionalizatu umore eta sormen erabiler eta, autobusean, norbait gizontxoa bizkarrean duelarik igotzen bada, irri-



DANI BLANCO

Ana Urkiza

J. I. Padrón

Iñaki Rozas

barrea lapurtzen digu. Nola ez ba, besterik ezean!

Ezagutzen dut nik bat, behinola, mutil lagunari autoa lapurtu zionik Inuzente Egunez, edo adreilu bat oparitu, edo eta kafea azukrez barik gatzetz prestatu. Lagunek zoratuta zegoela esan zioten grazia egin nahi izan zuenari; baina berak sortzen jarraitu zuen eta mutil lagunak, ondo pasatu ez

bazuen ere, ez zuen umorerik galdu.

Beharbada horixe da gainontzekook ere egin beharko genukeenaren irensten zailak diren gertakizunekin: bestearen askatasuna onartzen eta errespetatzen ikasi eta umorea edo kirol zaletasun pixka bat gehiago praktikatu. Hau da, ezin da beti irabaztera jokatu edo eta jokatura ere, onartu behar da, umorez, “galdu ere” egin daitekeela. Edo areago esateko, jokatzeko den une orotan, “jolastu” egiten dela kontuan hartu behar da (batzuetan irabazteko eta bestetan galtzeko) baina oroz gain, “jolastu” egiten dela. Hori izpiritua.

Ez naiz iragarlea. Ez naiz ez, etorkizunak ekarriko diguna asmatzeko gai, ez eta telebistan iragarkiak jartzen dituen ere. Baina seguru nago zarata gutxiago suposatuko duela iragarkien desagertzeak ETBn egin zen Erregearen Gabonetako mezuaren grabaketak baino. Zeren eta aizue! ETB publikoa da baina TVE baita ere! Baina esan dutenez, ez omen da TVE Euskal Herriko txoko guztietan ikusten eta bai, ostera, ETB. Eta euskal txoko horietan ez dutenez Erregea ezagutzen, bada, horixe Erregearen mezua ETB bidez ematearen arrazoia!

Hauxe, bada, gure umorea eta etorkizunerako kinie-la... Inuzente Egunerako hobe, dudarik gabe.

Urte berriari, bada, umorea eskatu diot, askatasunez sortzen jarraitzeko aukera eta Katixari kasu eginez, alaitasun eta baikortasun gurdi bat. Ea ba, konplizteko gai naizen! ■



Ez omen da TVE Euskal Herriko txoko guztietan ikusten eta bai, ostera, ETB. Eta euskal txoko horietan ez dutenez Erregea ezagutzen, bada, horixe Erregearen mezua ETB bidez ematearen arrazoia!



## ATZERATZAKONTUA, AURRERATZAKONTUA:

- 2012: KONKISTAREN URTEA



- 2011: XAHOREN URTEA



- 2010: GARTXOTEN ETA LOGROÑOKO EPAIKETAREN ETA ABADIAREN URTEA



- 2009: MAIALENEN URTEA



Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

## Hartzeko pronto emateko tonto

**H**orixe da homo gorronis edo bizkarroi malapartatuaren oinarritzko esaldia edo printzipioa.

Hasteko, urte berrirako nire desiorik onenak denontzat. Eta horien artean espezie horretako pertsonarik ez dakizuela suertatu inguruan urte osoan.

Gabonetako solasaldi horietako batean geundela, batek azaldu zuen bere koadrilako urliak esan omen zuela: “Dirua gastatu zaidak eta ordainduko al didazue tragoren bat edo beste?”. “Kutxa ez zegok urruti eta atera ezak dirua handik”, erantzun omen zioten. “Bai, gero aterako diat”, haren erantzuna. Baina gero hori ez zen sekula iritsi, ez behintzat koadrilari hori etxera erretiratu zen arte. Besteen kontura tragoak hartzen lasai ibili zela, alegia, bizkarroi mutur-handia. Baina, ez omen zen lehenengo aldia hori egiten zuena. Horrelakoak sarritan egiteko ohitura du gixaki ziztrin horrek nonbait. Mugikorra ere besteei eskatzen die, bereak saldorik ez daukala esanez. Edota dirua eskatzen du: “Dirurik gabe atera nauk. Hi, utzizkidak hogei euro, bihar emango dizkiat eta”. Gero, diru hori ez du inoiz itzultzen.

Elkarrizketan zehar horrelako kasu gehiago azaltzen joan ziren. Lagunekin zerbait jatera joan zen harena, adibidez. Besteekin batera mahaian eseri, lasai jan eta



DANI BLANCO

bukaeran esan: “Dirurik ez dut ekarri. Nirea ere ordainduko duzue, ezta?”. Eta hori behin baino gehiagotan egiten dute, lotsaren arrastorik gabe. Gero inoiz ez dira gogoratzen zorretan daudena. Ahal bada, berriro antzeko zerbait egiten saiatuko dira.

Bada jendea koadrilan joan eta ahal bada sekula erronda bat ordaintzen ez duena edota, berak ordaindu behar badu, edari merkea hartzen duena, baina, besteen kontura denean, konbinazio garestienak hartzen dituen. Berdin gertatzen da bazkari eta afarietan, bakarrik jaten duenean, justu-justuko janariak jango ditu, baina koadrilan denean eta denen artean ordaindu behar denean, genero garestienak eskatuko ditu.

Horrelako jendeak koadrilako giroa narrasten du, besteak borondate oneko pertsonak direlako eta halako mutur gogorrik ez dutelako. Behin eta berriz hori egiteko gai denak ez du lagun izenik merezi eta ez da koadrila normal batean ibiltzeko duina. Bizkarroi mutur-handi, lotsagabe galanta da espezie horretako jendea eta ez du inoren gupidarik merezi. Gizartean ere berdin jokatuko da bizkarroiak, besteen kontura onurak lortzen saiatuz, baina besteen alde ahalegin zipitzik egin gabe.

A gorronibus eta bizkarroinibus, libera nos domine. ■

« Horrelako jendeak koadrilako

giroa narrasten du, besteak

borondate oneko pertsonak

direlako eta halako mutur

gogorrik ez dutelako »

TXANDAN

Igor Estankona



Xalbadorren eta Amurizaren bideetatik, apur bat harago iritsi da mende honetan bertsolaritza: ez zaio mugarik ezagutzen, gizartearen mugak ez badira. Lurrealde berriak zapaldu ditzan hizkuntzak, euren baitako lurrealdeak esploratu dituzte bertsolariek. Maiz, emaitzen zain egon barik, sentimenduen, poesiaren eta musikaren eremu zabaletatik ibili eta gero heldu dira, grazia puntuan, bertsolari asko gure belarri gero eta jantziagoetara.

Artearen mailan dago bertsoa, eta ez dio horregatik bertsoa izateari utzi. Bederatzi tropo bederatzi puntu-

### Ur epela

koetan, metafora borobilak neurri itxuraz txikiegietan, deskripzio manieristak gaia entzun eta bat-batean... bertsogintza ailegatu da literaturaren tontor zurietara. Baina onena da konturatzea, eta plazerez ikustea, Joxe Agirreren izpiritua gordetzen duela oraindik hitzaren kirol nazionalak. Maite duela gaur eguneko entzuleak, konplikazioa beste, elokuentziaren finezia. Zazpi agurren ostean iritsi zen BECen ere —pasatu dira aste batzuk, baina gogoan iltzatuta daukat saioa— gauzak artez eta perfektu esateko unea, maisu zaharraren ahotik: “Al dezun artean eutsi/ ez dezu meritu gutxi/ emakumerik oraindik ez da hortara iritsi?”. ■

Mikel Zurloano

EHUKO EKONOMIA IRAKASLEA

## Tobin tasa



so apal bada ere, krisiari aurre egiteko neurrien multzoan begiratu dute, eta sakonera handiko neurriren bat ere aipatzen —eta eztabaidatzen— hasiak dira. Gordon Brown britainiar mandatariak G-20 taldeko Pittsburghgo gailurrean aurkeztutako proposamen batek bazterrak astindu ditu: finantza elkartrukeen gaineko zerga edo tasa ezartzea. Zailtasun teknikoez harago proposamenaren bideragarritasuna ez da erraza izango, batez ere AEBek erakutsi duten aurkako jarrera dela eta. Nolanahi ere, gai honen inguruko eztabaidak bulkada indartsua paratu du gailur horren bueltan.

Proposamen honen interesa hain da bizia ezen ATTAC erakundearen sorrera eragin zuen. Izan ere, erakunde honek aldarrikatzen duen Tobin tasa eta aipatutako proposamena oso hurbilekoak dira. Tobin Nobeldun ekonomialariak 1972an plazaratu zuen ideia hau izan zen: moneta trukatzeko bakoitzeko tasa bat ezartzea, moneta espekulazioak sortutako eragin kaltegarriak saiheste aldera. Zerga honek oso eragin txikia izango luke nazioarteko merkataritza edo epe luzeko inbertsioa egiten duenarentzat, baina oztopo izan liteke txanponen arteko epe laburreko salerosketak egiten duen espekulatzailarentzat.

Aurrera egin ez zuen ideia honetan oinarritu da Brownen proposamena. Baina azken hau Tobin tasa baina harago doa, tasa finantza elkartruke guztiei ezartzea proposatzen baitu



DANI BLANCO

Brownnek eta ez soilik atzerriko dibisen erabilera eragiten dutenei. Epe luzeko inbertsioak ez lituzke bereziki kaltetuko tasa honek eta, aldiz, finantza merkatuetako epe laburreko salerosketa espekulatzaila ugariren galga litzateke. Eta finantzaren gehiegizko jardura ez da inolaz ere produktiboa, azken urtetako esperientziak argi asko erakusten duen gisa. Tasaren onura gehigarria diru iturri garrantzitsua izatea da, hots, sarrerak handitzea ahalbidetuko luke eta defizit publikoak murriztu edota garapen bideko herrialdeen laguntza lerroak handitu litzake.

Horrelako tasa bat indarrean jartzeak izan ditzakeen arazo teknikoez harago, neurri honek finantza —eta ekonomiaren— egoera kritikoak saihesteko izan ditzakeen ahalmenean kokatzen da eztabaida. Aurkakoek diote oraingo krisiaren kontestuan tasa hau ez zela berez nahikoa izango mailegu pozoi-dunen sorrera eta inbertsiogileen erosketa toxikoa ekiditeko. Honen aurrean Krugmanek ohartarazten du inbertsio txar hauen kalapita sistemak epe laburreko diruarekiko duen dependentzia izan zela. Eta hori oztopatzeko elkartrukeen gaineko tasa eraginkorra litzateke. Noski, hau ez da nahikoa puztutako finantza ekonomia argaltzeko, baina bai norabide onean emandako urratsa. Nolanahi ere, Tobin tasarenugarra piztuta mantendu duen mugimendu alterglobalista ahuleziak jota dagoen unean Wall Streeten ezezkoa gainditzea ez dirudi lan erraza. ■



Mugimendu

alterglobalista

ahuleziak jota

dagoen unean

Wall Streeten

ezezkoa gainditzea

ez dirudi lan erraza



## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Pasa ederra, belodromoan igarotakoa. Hendaiako Topo geltokia animaturik geneukan bostak aldean, Lapurdiko zenbait lagun, familia, bertaratutak Anoeta geltoki. Bertsolari Txapelketako finalerdi berria zirudien sartzeko ilarrak. Antolakuntzak ere antza hura hartuta zuen, eskuorri banatzaileek kolore beretsua ekarri zidaten gogora. Baina hartan kanpoaldean zeuden batzuk, oraingoan antolatzaile lanetan ziharduten loock berdintsuaz. Errealeko ondarrutarra, Añorgako pelotaria. Ekitaldiak une gogoangarriak izan zituen, BECecko bertsolariak animatzaile, pantaila erraldoia espektakuloaren salatzaile. Ez dakit belodromoko aldagelak gauza diren kirolarien izerdiak berdintzeko, zeren arraunlariak ohituta badauzkate ere dutxa hotzetan, beste gainerakoek xukatzen nahiko lan. Ofizialtasuna lortze bidean ez da makala izan kirolariak erakutsitako fundamentua, kalefazioaz izerditzen diren nik ezagutzen ditudan bulegari federatiboek agertu ez dutena. Oreka TXkoek emandako bukaerak harritu ninduen gehien bat, ez egindako jokaldiagatik antolatutako sorkuntzagatik baino. Errekurtso erabilera bikaina, musika lanabes herrikoia nola bilakatu erakutsi ziguna, lanaren hotsa ekarri ziguna bere ederrean. ■

## Arratsalde

loaren salatzaile. Ez dakit belodromoko aldagelak gauza diren kirolarien izerdiak berdintzeko, zeren arraunlariak ohituta

badauzkate ere dutxa hotzetan, beste gainerakoek xukatzen nahiko lan. Ofizialtasuna lortze bidean ez da makala izan kirolariak erakutsitako fundamentua, kalefazioaz izerditzen diren nik ezagutzen ditudan bulegari federatiboek agertu ez dutena. Oreka TXkoek emandako bukaerak harritu ninduen gehien bat, ez egindako jokaldiagatik antolatutako sorkuntzagatik baino. Errekurtso erabilera bikaina, musika lanabes herrikoia nola bilakatu erakutsi ziguna, lanaren hotsa ekarri ziguna bere ederrean. ■

## Falta direnei jarriak



NAGORE LEGARRETA

### I

Neguak hoztu ezezik,  
lasaitzen du erritmoa:  
erregaloen zirrara,  
detaile baten mimoa...  
mahaiaren bueltan jarrita  
familiko arrimoa...  
denek nahi eta hainbestek  
falta duen animoa.

### II

Irudi dizdiratsuak  
marrazki handi ta guzi,  
koloretako bonbilak  
dira kalean nagusi.  
Nahiz ta denentzat ez duten  
ematen horren itsusi,  
barrua ilun duenak  
argirik ezin ikusi.

### III

Sakabanatze ankerra  
hamabi hilen laburpen  
presoek kartzelan urrun  
jarraitzen dutenez aurten  
halako jakinmin triste  
hara zer jakingo nuken;  
haiek urte hasiera  
nola ospatuko zuten.

### IV

Baserritarrez jantzita  
eta trikitia jotzen  
Zaldibin hogeitalauan  
abesten da gogoz, ozen  
baina aurten kanturako  
ahots bat gutxiago zen;  
falta direnen zerrenda  
ari da areagotzen.

### V

Abesti klasikoa da  
“Hator, hator” eder hori,  
barruan zirrarak pizten  
dizkiona edonori.  
Gaztainek danbolinean  
jarraituko dute gori  
esperoan ea zuen  
eskuetan noiz erori.

### VI

Biharkoa begi onez  
begiratuaz nolanahi,  
ametsak libre dira ta  
jarrai dezatela ernai.  
Hartzazue denok gure  
babesik goxoena, bai:  
ta zuri, segi indartsu  
ta urte berri on, Xumai.

### DOINUA:

“Kanta batzuek jartzeko”.



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

## erdiko kaiera

Antzerkia

Joseba Sarrionandia

## Lagun antzeztua

Azkenaldian Joseba Sarrionandiaren testuek hainbat proiekturen eskutik ezagutu dute oholtza eta herriz herriko publikoa. Poesia taularatu da batik bat, baina baita narraziogintzako testuak ere. Zer dute Joseba Sarrionandiaren lanek antzerkirako baliagarriak izateko?

OIER GUILLAN

EZ LITZATEKE URRUNERA JO BEHAR erantzuna topatzeko: hasteko eta behin kalitate literarioa, eta harekin batera belaunaldiz belaunaldi irakurria izatera eraman duen komunikatzeko gaitasuna. Zerrenda luzea osatu behar genuke Sarrionandiaren poemak musikatu dituzten bakarlari eta taldeak zenbatzeko, eta azkenaldian antzokietako ikuslegoa ere liluratu dute haren berbek.

Zabaldu berri dugun urte honetan beteko dira hogeita bost Joseba Sarrionandiak ihes egin zuenetik. Memoria kolektiboan iltzatu-

rik gelditu den gertaerak luzez elikatu du haren izenaren itzala. Sarrionandia bere bide propioa aukeratuta bilakatu da irakurleon memoriaren maparen parte, horregatik itzultzen gara irakurleok, entzuleok, ikusleok behin eta berriz haren testuetara, guk ere nolabaiteko aukera eginez, gurea izan daitekeen haren bidean.

Bestetik, Joseba Sarrionandia ote da egungo euskal egilerik taularatuena? Arte eszenikoen munduan ez da beti erraza izaten egon badauden testuen berri izatea, eta

ARGIA



teatro idazleak gutxitan izaten dira talde bateko kide. Egun idazten diren antzerkiak bat egiten dute teatrogileen kezkekin? Eta publikoarenekin? Poesiak testu gisa izan dezakeen irudien jarioak eta malgutasun estetikoak zerikusia izan dezakete agian ikuskizunen gidoiak poemekin osatzeko aukerarekin.

### Laborategiko esperientzia

Gaitzerdi taldeko Borja Ruizek hainbat esperientzia izan ditu berriki Joseba Sarrionandiaren testuetan oinarrituta. Batetik *Han izanik bona nai* izeneko antzezlan landu du Apurka taldearekin, eta bestetik *Euria esan eta euria erortzea* izeneko Kabia laborategiarekin. Orain bi urte eta erdi sortu zenetik lanerako ildo ugari azaleratu dira Kabian: ahots-kan-tua, teatro-testua, clowna... horiez gain irudi poetikoari garrantzi handia eman diote beti. Taldekideen joera estetikoak arakatuz topatu zuten kontatu nahi zuten istorioa: patio bat izango zen espazio dramatiko. Ruizek oroizten duenez galdera bat planteatu zuten: “Patio arrunt batetik egunero pasatzen diren pertsonaia grisei haurtzaroko begiak janzen badizkiegu, nola begiratuko diote bizitzari?”. Momentu horretan Sarrionandiaren imaginarioa agertu zitzaigun. Sarriren obra osoa irakurri eta bere hainbat testu kontatu nahi genuen; istorioa oso ondo egokitzen zirela konturatu ginen”. Ruizen esanetan jasotako irudietatik eraiki zituzten proposamen estetikoak. “Adibidez *Hil egin da organista* poematik leihoak pertsonaia bihurtzeko ideia ateratu genuen”. *Itzalararekin solasean* eta *Bere itzalararen kidea* testuetatik bi pertsonaia sortu zituzten. “Alde batetik, ikuskizunaren ildo eramango zuena, Sar izeneko, Sarriren nolabaiteko *alter ego* eszenikoa. Bestetik, haren itzala, beltzez jantzitako pertsonaia”. Badaude beste testu batzuk, patioaren biztanleen bakardadea eta inkomunikazioa jorratzen dituztenak, *Bakardadea* ipuin laburra, *Denboraren fabrikazioa* testua edo *Dena berdin* poema adibidez.

Ikuskizunari titulua eman dion testua ere badago, hainbat pertsonaia euren haurtzarora gogoratzen duten unean. “Egoera horretan, batek galdetzen dio besteari ‘Zoriona, ba al dakizu zer den hori? Euria esan eta euria erortzea’. Patioko biztanleek euren haurtzarora gogora ekartzen dutenean, orduan bakarrik dute komunikazio zuzena”. Zerrenda luzea da, *Lagun izoztua* liburutik, kasu, istorioa baino metafora hartu dute, eta *Hitzaren ondoregia* liburutik *Gosearen mendekua* eta *Zigarro kearen teoria*. Ruizek argi du zein den Sarrionandiaren literaturak beren antzerkiari egin dion ekarpena: “Batetik, komunikazio sinplea eta



LE PETIT THÉÂTRE DE PAIN

Goian, Le Petit Théâtre de Pain taldearen *Aulki hutsa* laneko une bat; eskuinean berriki, Kabia laborategiaren *Euria esan eta euria erortzea* laneko irudi bat. Biak ere, azken urteetan agertokietan ikusi ahal izan diren beste zenbait obra bezala, Joseba Sarrionandiaren testuetatik abiatuta egin dituzte.

zuzena, gogoeta sakonak gordetzen dituen; bestetik, absurdoaren eta surrealismoaren kutsu existentzialista, harrigarria eta batzuetan dibertigarria dena”. Ikuskizuna gaztelaniaz eta euskaraz estreinatzeko asmoa dute.

### Sarri dantzatzuz

Kukai taldeak, Tanttakarekin egin duen ibilbidean nolabaiteko heldutasuna suposatzen duen formatu handiko hirugarren lana prestatzerakoan egin du topo Sarrionandiarekin. Hasieran hainbat egileren poesiarekin lan egiteko asmoa bazuten ere, Sarrionandiaren testuek hainbesteko pisua hartu zuten, arreta osoa eskaintzea erabaki zutela, ikuskizuna *Hnuy illa nyha majah yahoo* liburuaren lehenengo bi hitzekin izendatuz. 2009an saio ugari egin dute, eta Jon Maya Kukaiko dantzari eta koreografoak dioenez Sarriren poesiek badute publiko-arekiko gertutasuna sortzeko ahalmena. “Aurtengo esperientzia eta gero esan deza-

## Poetikaren dramaturgia eta dramaturgiaren poetika

Teatroaren kontzepzioa XX. mendeko abangoardien haritik aldatzen hasi zelarik, poetika eta dramaturgia ezberdinen arteko harremanen loturak topa litezke han-hemenka. Antton Lukuk esan zuen behin gero eta urrunago ikusten duela bere burua teatro-testuaren kontzeptutik, eta gertuago jaso duela hitzarena baino poetikaren eragina, joko sinbolikoarena. Borja Ruizek ere ikusten du hor gogoeta-gaia: "Teatroaren lengoia garaikideak badauka joera ildo narratiboak apurtzeko (hasiera, korapiloa eta bukaera estruktura apurtzeko) eta narrazioen mixturak jorratzeko, egoera baten ikuspuntu ezberdinak planteatzeko. Geure kasuan hola da: istorio narratibo bat baino, egoera poetiko bat (esana hantitzak dituen) hartzen dugu eta berau, hitzaren bitartez, irudiaren bitartez eta soinuaren bitartez jorratzen dugu. Horrekin idazkera klasikoarekin kon-

paratuta bestelako erritmoa sortzen da. Geure sorkuntzen erritmoak lotura handiagoa du poesiak daukan erritmoarekin antzerki obra edo eleberrienarekin baino".

Dantzari dagokionez gorputza metaforak eta irudiak sortzeko askeagoa denez, poetikak izan lezake zer esanik. "Poesiak gauzak esan bai, baina nik uste dut askotan sujeritu egiten dituela, eta hori dantzara eramatea polita izateaz gain, agian bada bide bat ere", Jon Mayaren esanetan. "Dantza nolako diziplina den kontuan hartuta, nik uste aukera ematen duela poesiaren irakurketa bat egiteko eta gauzak sujeritzeko eta sentiarazteko beste lengoia baten bitartez". Apika, ideia berrien gabeziatik letorkeen diziplinen arteko nahasketatik harago doan bidea izan liteke, garai berrietako oholtzek bilatzen duten lengoia eta bide berrien adierazlea.

KABIA LABORATEGIA



kegu hori ematen dela bai Euskal Herrian, baita kanpoan ere. Hemen Sarri eta bere poesia oso ezagunak dira, eta erabiltzen dugun dantza estiloarekin lagunduta bat egiten du jendearekin. Hego Amerikan edo Espainian egon garen lekuetan ordea, ez da ezaguna, kasu askotan lehenengo erreferentzia jaso dute ikuskizuna edo esku programaren bidez, baina ikusten da poemak haiengana ere iristen direla".

Emanaldi asko eskaini duen beste ikuskizuna da Le Petit Théâtre de Pain ekoiztutako *Aulki butsa*, oraindik Ondarroako, Durango eta Aulestiko plazak ezagutzear dituen lana. Ander Lipusek zuzendurik, eta Manex Fuchs eta Battitt Elizalde jokoan direlarik, tankera guztietako espazioetan taulartzeko pentsatua da, izan gaztetxeak ala antzokiak, jendearekiko gertutasunari sekula uko egin gabe. Fuchs en pertsonaiaren bakarrizketan

txertatu dituzte poemak, estetika propio baten barruan. "Sarrionandiaren hainbat liburutatik ebatsi eta torturatutako testuekin eginiko ekintza drama" da antzezlan, Fuchs en esanetan. "Lan bizia da, ez dugu sekulan bukatzen *Aulki butsa*ren sorkuntza. Aldi oro gauza txikiak mugitzen dira, poesia horrek hori permititzen baitu, askatasuna ematen baitu gaia edo materiala edo haragia beste manera batez erraiteko". Pertsonaia nagusiak energia handiz bilduko ditu poemak bere jokoan, eta umorez zein amorruez emango ditu bere kezka politiko funtsezkoen islak. "Harrera izugarri beroa dugu beti, jendeak bai poetari bai poesia horri dion atxikimenduaren seinale. Bestalde guk eginiko dramaturgia horretan hemengo egoera aipatzen denez, publikoak bere baitan ikusi behar ditu berriz gauzak, bere lekutik, bere aulkitik".

Ez dira zerrendako bakarrak. Berriki estreinatu du Le Théâtre du Versant konpainiak *Diaspora bidaia*n, batez ere Bernardo Atxagaren *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxi*an eta Sarrionandiaren *Lagun izoztua* liburuetan oinarrituta. Izan ziren gehiago lehen ere, eta agian izango dira berriak. Aurtengo lekuan gogoratuko dute Sarrionandiak ihes egin zueneko eguna, haren literatura behin eta berriz gerturatzeko aitzakia aparta. Literatura Eskolan ere Inigo Aranbarriren eskutik Sarrionandiaren saiakera sakonki aztertu ostean haren narrazio gintzari helduko diote martxoaren 27an Durangoko liburutegian Xabier Mendigurenen eskutik. Joseba Sarrionandiaren liburuek zabaltzen duten komunikazioa paperezkoa den arren ez da paperera mugatzen. ■

## Telebista

Txirri, Mirri eta Txiribiton, 25 urtez ETBn

# Irri urratzaileak

Aurkezpenak soberan daude: Xabier Otaegi, Jose Ignazio Ansorena eta Txema Vitoria; alegia, Txirri, Mirri eta Txiribiton. Nork ez ditu ezagutzen? Telebistaren bidez, aspalditik euskaldun guztion etxeko bihurtu dira hiru pailazoak. 2009an mende laurden bete zuten ETBn, eta ospatzeko, urtea amaitzear bazkaria egin zuten, urte horietan guztietan lankide izan dituztenekin. Bazkaria aitzakia hartuta, pailazoen iraganetik orainerako ibilbideaz mintzatu gara Jose Ignazio Ansorenarekin.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Lander Arbelaiz

ABENDUAREN 28A, 2009koa; Lasarteko Txixardin Beltxako jangela jendez mukurru. Urtetan pailazoekin lan egin duten pertsonak daude mahaietan, lagun zaharrak kontu kontari. Gonbidatuetako batek –izenik ez dugu emango, gehixeago irakurrita ulertuko diren arrazoiengatik– komunerako bidea hartu du. Atea zeharkatu eta pasiloan beltzez jantzitako gizon batekin egin du topo.

- *¿A dónde se dirige?*
- Komunera.
- *Si no me habla en cristiano, mal empezamos...*
- ...
- *¿Al de señoras o al de caballeros?*
- Caballeros.
- *¿Qué va a hacer usted?*
- Mear.
- *Facílitame su nombre, carnet de identidad...*

Bazkaria bukatzerako zerrenda luzetxoa izango da, eta, aldizkari honek jakin ahal izan duenez, denek “mear” erantzungo dute, zer gerta ere. Txirri, Mirri eta Txiribitonek egun berezirako prestatutako brometako bat da. Bakarra? Ezta pentsatu ere.

Bazkalostean zerbitzariak hasi dira gonbidatu bakoitzari kontua pasatzen, kinto bazkari batean bezala: 40 euro eta erregalirako beste hamar. Elena Iruretak ezin du gehiago, hasi da kexuan, gainezka eginda. Aizpea Goenagaren arrapostua berehala: “Elena, mesedez, ez jarri

horrela”. Baina Iruretari ez zaio normala iruditzen, Jose Ignazio Ansorenari kargu hartu dio, asko maite dituela pailazoak, baina gonbidatuei kobratzen hastea ere... Gainontzeko bazkaltiarak harrituta daude, urduritzen hasi dira eztabaidarekin. Eta halako batean, Irureta, Ansorena, Goenaga eta broma prestatzen aritu diren guztiak hasi dira kantatzen: “Inuxente, Bixente, zakurrak buztana tente!”. Dena aurretik prestatuta zeukaten.

Baina... gonbidatu batzuek dagoeneko ordaindu egin dute... Hara oraindik hiruga-



rrren broma bat: dirua jarri dutenei “*Santa Rita, Rita, lo que se da no se quita*” kantatzen hasi dira pailazoak; alegia, ez dietela dirua itzuliko. Esan beharrik ez dago, azkenean gonbidatu bakoitzak eramango ditu bere sosak etxera bueltan, patrikan ondo gorde-ta, broma berrietatik salbu.

## 25 urtez telebistan, ia 38 urtez pailazo

Bazkariaren biharamunean hitz egin dugu Jose Ignazio Ansorenarekin. Galdetu diogu, 25 urte telebistan eta ia 38 pailazo lanetan, ea hasi zirenean espero zuten horrelakorik; hainbeste den-bora; hain urrun iritea. Ansorenak ezetz, hasieran euskararen aktibistak zirela, saltseroak, euskal kulturarekin zerikusia zeukan guztian sartuta zebiltzala: Kresala elkartearen, dantzari taldearen, Olen-tzeroak antolatzen... Haurrentzat euskarazko ekitaldiak egiteko Haur Komisio bat lanean hasi zen garaitu hartan. Basamortua zen esparru hori euskararentzat, asko zegoen egiteko: umeentzat antzerkiak, filmetxo batzuk, jaialdiak. Eta finantziarioa: “Han eta hemen eskean ibiltzen ginen, dirua bildu eta jaialdiak antolatzeko. Eta halako batean, giro horretan, pailazoena atera zen. ‘Niri izugarri gustatzen zaizkit, euskaraz ez dago horrelakorik eta... egingo bagenu talde bat?’. Zergatik izan ginen gu aukeratuak? Igual gure ezaugarri fisikoak egokiak zirelako: Xabier dotorea zen, kantari ona; eta ni traketsa, txikia, pailazo tontoarena egiteko oso egokia”.

Baina, esan bezala, ez zuten inondik espero hainbeste irautea. “Garai hartan, saio batzuk egin eta pentsatzen genuen, igual gu ikusita norbait animatuko zela talde bat ateratzera”. Eta telebista? Hasieran pentsaezina zen, ez baitzegoen euskarazko katerik ere. 1976an TVEko Centro Regional saioan astero egiten zuten euskarazko saioan azaldu ziren, artean Kixki ta Mixki ta Kaxkamelon izenarekin. Baina zaila zen etorriko zena aurreikustea.

1984an egingo dute jauzi katodikoa: dagoeneko Txirri, Mirri eta Txiribiton bihurtuta, Txema Vitoria pailazo mutuaeren rolean, Don Don Kikilikon programa egitea eskaini die ETBk. Martin Ibarbiak hots egin die. Bildu dira, eta eguneko parrilla baten aurrean zera

## **“Ez ginen jabetzen telebista egitea zer zen, nolako konplexutasuna zeukan, eta aurreneko urtean erotuta bukatu genuen”**

**JOSE IGNAZIO ANSORENA**



Goiko argazkian, beste batzuen artean Anjel Lertxundi, Andoni Egaña, Jaime Otamendi, Miren Azkarate eta Bingen Zupiria. Ez dira makalak izan Txirri, Mirri eta Txiribiton urteotako kolaboratzaileak.

esan du Ibarbiak: “Umeentzat ordubete jarri dugu; ordu erdi marrazki bizidunekin beteko genuke, eta beste ordu erdi pailazoekin”. Eta hizketan-hizketan, ordubeteko saioa egiteko aukera aterako da. “Ba bai, ordubeteko egingo dugu!” ausartuko dira pailazoak. “Baina batere pentsatu gabe! Ez ginen jabetzen telebista egitea zer zen, nolako konplexutasuna zeukan”. Lehen urtean beraiek egingo dute dena: zuzendu, gidioa idatzi, musikaz arduratu... “Erotuta bukatu genuen”.

Horregatik, bigarren urtetik aurrera laguntza bilatuko dute. Andoni Egaña bixarguri bat, soldaduskatik bueltatu berria, gidoi-gile lanetan hasi eta taldea pixkanaka-pixkanaka handitzen joango da; horren lekuko, inuzenteen egunean Lasarten bildutako koadrila. Meritu bikoitza dute, Ansorenak dioenez, urte haietan ETBn lan egindakoez: ez zegoen telebistarik, sortu egin behar zen, eta sortu zuten. “Ez zait iruditzen herri gisa hori eskertzen denik; ez guri, gu gauza txikia gara horretan; baina herri ikuspegi batetik, izugarria da telebista sortzen pertsona askok –Martin Ibarbiak berak, adibidez– egin duten lana, eta horri esker gaur egun daukagun telebista azpiegitura”.

## **Sudurra baino gorriago**


Sudurra ez da pailazoek gorri eduki behar duten bakarra. Txirri, Mirri eta Txiribitonek behintzat, ez dute galdu topikoak hausteko grina: pailazoak umeentzat direla pentsatzen dutenen aurrean, Ansorenak dio beraia mundu guztiak aditzeko moduko mezua dela. *Txutxu*pe diskoa, argitaratu duten azkena, adibidez: haurrek jostatzen ari direnean tranposoak salatzeo erabiltzen dute hitz hori, baina zentzu orokorragoa hartu du CDan. “Hainbeste txorizo eta lapur nazkagarri, zikinoso baitago gaur egun... Imajinatzen ditut Enplegu Erregulazio Espediente faltsuak egiten dituzten enpresen aurrean langileak ‘Txutxu!’ kantari; edo Vatikanon aurrean kristauak ‘Txutxu!’ esaten, Munilla obispoa jarri dutelako... Aukerak etengabe sortzen dira, eta bageneukan gogo hitza errekupe-ratu eta bere estatusa emateko”. 2010ean ere ez dira faltako “Txutxu!” esateko motiboak. Ez baitago giroa brometarako... ezta pailazoentzat ere. ■

# Liburuak

## KRITIKA

*Ezer gabe hobe.*  
Itxaro Borda.  
Susa. 17 euro.

Helduen literatura  
*Gema Lasarte*



## “Ez dugu generorik, ez dugu aberririk”

Itxaro Bordaren nobela batzuk irakurtzerakoan nekeza egiten zait fikzioa eta autobiografia izan daitekeenaren arteko muga bereiztea. Philippe Lejeunek paktu autobiografikoaz hitz egiterakoan, egilea, narratzailea eta pertsonaia bat direla esaten zuen. Käte Hamburgerren esanetan, aldiz, lehen pertsonaia kontatutako narrazio guztiak fikzio-tik kanpo geratzen dira. Dekonstruziotik edan zuten Jacques Derri-dak eta Roland Barthesek berriz, autobiografiak fikzioak direla berretsi zuten, izan ere, egileek memoria lagun identitatea eraikitzeari ekiten omen. Gauzak horrela, Itxaro Bordak paratu zigun nobela beltzari dedikaturiko trilogian (*Bakean itzi arte*, 1994; *Bizi nitzano munduan*, 1996; *Amorezko pena baño*, 1996) eta 2007an berriro ere protagonista berarekin argitaratu zuen *Jalgi badi plazaran*, Amaia Ezpeldoi detektibe emeak hitza hartzen zuen bakoitzean, Borda zetorkidan gogora. Irakurri berri dudak azken nobela honetan ere gauza bera gertatu zait. “Nik bestelako ikurra asma nezake, geografari eratzekia-go. Berdea iparraldeko zuhaitzentzat, urdina Bizkaiko itsasoarentzat eta urrea Bardeetako itsasoarentzat” (71. orrialdean). Lurralde horiek maite zituen Amaia Ezpeldoi eta ezagunak genituen dagoneko Bordaren nobelagintzan. Sigmak, azken nobelako protagonistak, dituen ezaugarriak ere lehendik ezagunak ditugulakoan nago. “Lantokian, askara ura milikalapatzera joan nahi zuen astoaren pare nintzen: inadaptatua, gaitzetsia, mandotua” (93. or.).


Eleberri honek diskurtso feministan badu berritik, ordea, protagonista feminismoaz ez ezik lesbianismoaz, transgendersismoaz eta transbestitzeaz mintzo baitzaigu. *Queer* teoriaren defendatzaile gisa agertzen zaigu Sigma: “Eiki, ez dugu eredurik, ez dugu generorik, ez dugu aberririk, aberastasun finko eta gerorik ez dugu, ez gara unibertsalak” (126. or.).

Bestalde, Borda, Joseba Gabilondok ondo esan bezala, ni migratzailea da, batetik bestera etengabea bidaian dabilen ni migratzailea, eta oraingoan ere Afrikatik Londresera eta Mexikotik Kaliforniara espazioak urratzen ikusiko dugu. Hala eta guztiz, binarismoaren apurketa, genero aniztasuna edota trantsituan dabilen generoen inguruko ekarpenak dira eleberri honetan benetan berritzaile, Judith Butler eta Monique Witig lagun dituela. Eleberrian behin baino gehiagotan aipatzen dira euren izenak eta ez hori bakarrik, euren liburuak ere zehazten dira: Wittingen *Les guerrillères* eta Butleren *Pre-carious Life*, hain zuen ere. Eta hortxe suertatzen zait niri zalantza, diskurtsoen eraikuntzan behin eta berriro Borda baitakusat Sigma eta bere lagunak ikusi beharrean. ■

## Sigmund Freuden obra garrantzitsuenetako bat

Psikoanalisiaren aita eta azken mendee-tako pentsalari garrantzitsuenetakoa da Sigmund Freud. Horregatik, eta lehenago beste liburu batzuk itzulita bazeuden arren, Gaiak argitaletxeak *Egonezina kulturalan* euskarara ekarri izana –Xabier Insausti eta Jesus Mari Intxauspe itzul-

tzaile– kontuan hartzeko moduko aha-legina da. Liburu honetan atseginaren printzipioaz hitz egin zuen Freud, eta atsegin hori lortu ezin denean gauzatzen den sublimazioaz –artearen, kirolaren, filosofiaren eta abarren bidez–; eta kulturak, Moravia-koaren ustez, badu zerikusia sublimazio horrekin. ■



*Egonezina kulturalan.*  
Sigmund Freud.  
Gaiak.  
125 orrialde.  
18 euro.

## Danimarkan girotutako nobela paraleloa

John Gardnerren *Grendel* nobela ariketa bitxia da: *Beowulf* poema epikoari ikuspuntu berria eskaintzen dio egileak, testu hartako pertsonaia gaiztoa –Grendel piztia– protagonista bihurtuz. Noski, ikuspuntua aldatuta, pertsonaia ere aldatu egiten da: *Beowulf*en ez bezala, Grendel gaiztoa izateko arrazoiak ez dira gorrotoa eta animaliaaren sena, askoz kontu sofistikatuagoak baizik. Gizakien kontra borrokan ari den bitartean, Grendel unibertsoaren zentzuari buruzko gogoetak egingo ditu. Gaztelaniaz argitaratu du Donostiako Meettok argitaletxeak, Jon Bilbaok egindako itzulpenari esker. ■



*Grendel.*  
John Gardner.  
Meettok.  
212 orrialde.  
16,15 euro.

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Aurrera begira.**  
Des-Kontrol.  
Baga Biga.  
Iraupena: 37'18".  
12,50 euro.

## Erdibideak alboratuta, indarrez eta detailez erditutakoa

ARRASATEKO street-punk taldeak ibilbide naturalari ekin dio lau katuk beraien kontra hasitako kanpaina bidegabekia geldiarazi ostean; eta orain arteko disko irekiena egin dute: ohiko punk-rock eta Oi!aren arteko mugan daude hainbat pieza melodiko dira marka, baina badira ia hardcorearen abiadura eta punkaren ezinegon transmititzen duten piezak ere (*That's my crime*, *Skunx*, *Eromena*, *Sasikume ugari*...); baita, abestia garatu ahala,

punk-rock melodikotik ska dotorean bilakatutako hit!-a (*Sortu edo hil*) eta teklatuak eta giro akustikoa hartzen dituen *Burua hotz eta bihotza bero* ere. Eskaintza-aren aniztasunak eta kantu batetik bestera dagoen muturreko jauziak entzule batzuk harrituko ditu, baina apustua txalogarria da, erdibidean ibili arren, egingakoa taxuz eta gogoz egin dute-eta.

[www.des-kontrol.com](http://www.des-kontrol.com)

### Markel Urrutia - Des-Kontrol

## «Askok beste *Duintasunez eutsi* bat nahi zuten, baina guk ez»

*Sasikume ugari, That's my crime, Ordain dezatela*... Politikoki gehiago posizionatu eta hitzak zuzenagoak dira. Amorratuta jarraitzen duzue?

Beti egon gara posizionatuta, baina hitz zuzenagoak irten zaizkigu, bai. Haserrea joaten hasi zaigu, baina hitz hauek idazterakoan jasan-dako salaketa ustelekin erreta geunden, eta hori nabaria da.

Lan honetan mota askotako kanta batutuz, taldearen alderdi asko erakutsiz. Ez da izango gogorregia batzuentzat eta bigunegia besteentzat?

Bai, baliteke. Abestiak egi-terakoan ez dugu inongo mugarik jarri nahi izan. Kanta batek tronpeta eskatzen bazuen edo gaita, ba aurrera! Nolabait armairutik irten garela esan daiteke. Seguruenik askok beste *Duintasunez eutsi* bat nahi zuten, baina guk ez. Dena dela, taldearen ibilbidea eza-gututa, ez daude bi disko berdin, beti dago aldaketa.

*Izan zinetelako gara*. Zer pentsatuko dute Puñetazo, Zakarrak eta Iskanbi-lako kideek gaur egun punk-Oi!ak daukan arrakasta ikusita? Zer galdu eta zer irabazi du?



Horiek aitzindariak izan ziren eta gaur egungo fruituak beraienak ere badira, harro egoteko moduan daude. Des-Kontrolak ez genuen sasoi hura bizi, baina aipatutako taldeekin hartu-eman handia izan dugu eta hortik zertxobait ikasi dugu. Zoritarrez, gaur egungo taldeek bakarrik musika jaso dute. Horregatik, batzuetan gaizki ulertu eta tontakeriak egoten dira, punk-Oi! mobidatik kanpo egon beharko zirenak. Azken finean, bizitzeko modu bat da, espiritu bat, konpromisoa... Gu ez gaude beste inoren gainetik, baina jasotakoa transmititzen saiatzen gara.

*Burua hotz eta bihotza bero*. Zahartu egin zarete? Zer eman eta zer kendu dizue taldearekin bizi izandakoak?

Eman, asko, taldeak daukan oihartzuna eta jendearen berotasuna, batez ere; bestalde, konformismoan jausteko arriskuari aurre egin behar zaio. ■

# Ezpalak

JON TORNER

## Hilaren 9an egingo da Hatortxu Rock jaialdia

BIZARDUNAK, Ken Zazpi, Boikot, Def Con Dos, Goar Cicatriz, Obrint Pas, Trikidantz eta Soziedad Alkoholika taldeek joko dute Hatortxu Rock musika jaialdiaren hamai-kagarren edizioan. Atarrabia eta Burlata artean jarriko dituzte euskal presoen aldeko jaialdia jasoko duten bi karpa erraldoiak, *entre cementerios* deitzen dioten gunean. Sarrerek 20 (aurrez erosita) eta 25 euro (egunean bertan) balio dute. Informazio gehiago: <http://hatortxurock.org>.




## ‘Muerte o gloria’, The Clash gogoan

DUELA 30 URTE kaleratu zuen *London Calling* diskoa The Clash taldeak. Orain, ingeles hamazazpi kanturen bertsioak bildu ditu Erromoko (Bizkaia) Brixton Records zigiluak *Muerte o gloria* diskoan. Euskaldunak dira bilduman parte hartu duten talde gehienak: Macarrada, Akatz, Anarko & Fermin Muguruza, Vomito, Habeas Corpus, Mundo Matadero, Obligaciones...

**Juan Kruz Igerabideren** *Ainatze-marra* eta Aizpea Goenagaren *Arrainontzia* lanak plazaratu ditu Atenea argitaletxeak. Poesia bilduma da Igerabiderena, eta antzezlan Goenagarena. Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dituzte biak.

**Mentxu Gal** erakustaretoa irekiko dute hilaren 22an Irunen (Gipuzkoa), artistaren 30 bat koadroekin. Berrehun metro koadroko aretoan aldi baterako erakusketak jartzeaz gain, ikastaroak eta hitzaldiak ere antolatuko dira. Kutsak finantzatzeko du funtzionamendua, datozen bi urteetan. Gerora, Bidasoako Pintoreen Mentxu Gal Museoa egitea da Irungo Udalaren asmoa.



DANI BLANCO

**Jose Antonio Arana** euskaltzainak bere liburutegian pilatutako materiala katalogo batean bildu du Euskaltzaindiak, *Jose Antonio Aranaren Biblioteka* izenburupean. Katalogoak dituen 5.657 erreferentzietatik 2.183 dira euskarazkoak. PDF formatuan ere eskuratu ahal izango da laster, Euskaltzaindiaren webgunean.

● **Joseba Irazoki musikariak Berrian:** «Ez zait birtuosismoa interesatzen, baina uste dut banaizela [barre egin du]. Gaztetan oso modu birtuosoa jotzen nuen gitarra, oso heavy zalea nintzen, baina Xabier Montoiarekin hasi nintzenean aldaketa bat gertatu zen. Alderantzizko bidaia egin behar izan nuen, zikin jotzen ikasi behar izan nuen kasik, zarata ateratzen... Ikasitakoa desikasten. (...) Birtuosismoak lagundu ahal dizu zikin jotzen, eta teknikaren arlo guztiak menperatzen badituzu jotzen ahal duzu era batera edo bestera. Musikariok arrisku hori hartzen dugu: erakutsi nahi izaten dugu dakiguna, eta beti ez da musikaren mesederako izaten».

● **Aitziber Saldias idazleak Garan, Qenna (ECU) nobelaren harira:** «Eleberri erdia edo idatzita nuenean [euskaraz], konturatu nintzen askoz ere zailagoa izango zela euskaraz zerbait argitaratzea gaztelaniaz baino, gaztelaniaz merkatu zabalagoa dagoelako, baita idazle berrientzat espresuki sortutako argitaletxeak ere. Ez dakit euskaraz horrelako argitaletxerik existitzen ote den, baina

bestela ikaragarri zaila egiten da idazle berri batentzat bere obra argitaratzea. (...) Orain, argitaratuta dagoela, konturatzen naiz euskaraz idatzi izan banu, ezagutzen dudan jende askok ezin izango zuela ulertu».

● **Txomin Peillen idazle eta ikerlariak Bizkaie! webgunean:** «Parisen, Paben eta azken aldion Baionan irakasle nabil ogibidez. (...) Polifazetikoak nazela entzutea gustora hartzen da baina, ez dakit ba...Gauza bat esango deutsut: inork ez ditu inon nire lanak topetan; nire lanak aspaldi-koak dira, Mitxelenan badagoz, liburutegietan badagoz, literatura arloan lau sari irabazi izan ditut, hiru eleberri handian, bat laburrean eta, berbarako, entziklopedia handi horreetako batean aitatu be ez nabe egiten euskal idazleen artean. Mugaren bat badago hor nonbait Bidasoaldean; Zikoinak itxi ninduan Parisen, han jaio nintzan eta kanpotarra naz nonbait, ez naz euskalduna... Boikotak, politika arrazoia nonbait... Gure gazte garaian ez egoan holakorik, eretxi politikoak gorabehera ez egoan arazorik eta orain, oster, sailkatua zara...».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

# Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

## Nobela fragmentario bat, zati-zati eginda porturatzen

*A ciegas* (Itsu-itsuan). Claudio Magris. Anagrama, 2006.

NOBELAKO aurreneko hitzak 1988an idatzi ziren arren, 2005era arte ez zuen argia ikusi *A ciegak*ek. Magrisek elkarrizketaren batean azaldu du zergatia: "Istorio hau mendearen barrunbeetara bidaia da, eta egitura arazo erraldoiak ditu istorio asko bakarrean bildu nahi izateagatik: itsasoaz asko hitz egiten duen gizon bat, hainbeste abentura, hainbeste istorio... Hain zuzen, nire arazoa hori guztia batera jartzea zen, eta horregatik behar izan zituen hainbeste urte liburuak".

Idazteko hartu zuen denbora luzeagatik baino ez bada ere, azaletik pretentsio handiko obra dirudi. Eta nobelan aurrera egin ahala konfirmatzen da ustea: bizkarrezurrik gabeko testua da, lotu gabeko puskaz osatua eta bi buruko pertsonaia nagusiaren bidez kontatua –narratzailea aldi berean da Salvatore Cippico komunista zaharra eta XIX. mendeko Jorgen Jorgensen itsasgizona—. Iraultza eta amodio frustratuen argazkiak eskaintzen ditu kontalariaren letania luzeak. Geografikoki ere, zentrorik ez: Islandiatik Australiara, Italiatik, Yugoslavia-

tik, Ingalaterratik, Espainiatik pasaz, inon heldulekurik aurkitu gabe; erdiko kapitulu laburretan estilo lirikoa goan idatzita badago ere, orokorrean testu kaotiko samarra da.

Printzipioz, gustatu egiten zaizkit linealak ez diren kontakizunak, egitura fragmentarioak, pertsonaia eklektikoak, parte-hartzea eskaintzen didaten nobelak. Baina behin liburua bukatuta, halako hutsune bat geratu zait *A ciegak*ekin; sentsazioa, irudi gehiegi eskaini dizkidatela bata bestearen atzetik, eta mamirik, aldiz, batere ez. Gainera, pasarte batzuetan moralkeria eta autoflagelazio post-komunista gehiegizkoak iruditu zaizkit –kontu ideologikoa, noski—.

Agian asmoa zen handiegia, eta abiapuntutik zen ezinezkoa liburua portura osorik iristea. Brankako irudia eta ohol batzuk iritsi dira; gainontzekoa, zati-zati eginda, itsasoak irentsi du. Menturatu izana eskertu beharko zaio Magrisi; hurrengoan beharbada?



Claudio Magris.

## Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak: .....  
 Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....  
 Herrialdea: ..... Jaioteguna: .....  
 N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....  
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz  
☐ Taloiez  
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoak betetzeko sollik  
 Banku edo aurrezki kutxa: .....  
 Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....  
 Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefonoa: .....  
 Entitatea: ..... Sukurtsala: ..... K.D.: ..... Kontu zenbakia: .....  
 Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

### Aukeratu ongietorri oparia



"Kirolaz badakit"  
mahai-jolasa



"888 txiste"  
liburua



"Txoriak txori"  
lamina



%25eko beherapena  
ikasle bazara

**Urtebeteko harpidetza:**  
2009ko prezioak

**135 €** Hego Euskal Herrian  
**165 €** Iparr Euskal Herrian

**argia**

# EUSKAL OROIGARRIA

# MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)

<http://www.argia.com/makilak.htdocs>

## ANA ZAMBRANO

|                                                                  |                          |                                      |                                                                                   |                                          |                          |                                                     |                             |
|------------------------------------------------------------------|--------------------------|--------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------|--------------------------|-----------------------------------------------------|-----------------------------|
| LEHENBI-<br>ZIKOA                                                | URTEBE-<br>TETZEA        | ETXE-<br>MULTZO                      |  |                                          | BELE HITZ-<br>ELKARKETAN | BERRIA EZ<br>DENA                                   | ASKO, ANITZ<br>(BIZKAIERAZ) |
| PERTSONAIA-<br>REN ABIZENA                                       | PRESIO-<br>UNITATE       |                                      |                                                                                   |                                          | HEGOAREN<br>AZPI         | ITZALPE                                             | PETRAL<br>BIHURTU           |
| FARDEL<br>MULTZO                                                 |                          |                                      |                                                                                   |                                          | ... EGIN,<br>LEHERTU     |                                                     |                             |
| BERE IZATEZ                                                      |                          |                                      | 1501<br>AZAL                                                                      | KIROL BAT<br>100<br>ZATITAKO<br>BAKOITZA | ERABATEKO<br>NAHASTE     |                                                     |                             |
| NITROGENOA                                                       | ERA, MODUA               |                                      |                                                                                   |                                          |                          | BARRE                                               |                             |
| BALEUKA                                                          | IRRISTATU,<br>LABAINDU   |                                      | ARMA ZURI                                                                         |                                          |                          | FILIPINE-<br>TAKO<br>HIZKUNTZA                      |                             |
|                                                                  |                          |                                      | ORDOKIA,<br>EREMU<br>ZELAIA                                                       |                                          |                          |                                                     | LEKU<br>ATZIZKIA            |
| LURRAREN<br>EMAITZETA-<br>TIK ELIZARI<br>EMAN BEHAR<br>ZITZAIONA | PERTSONAIA-<br>REN IZENA |                                      |                                                                                   | TXORI MOTA                               |                          |                                                     |                             |
|                                                                  | ERREGELA,<br>NORMA       |                                      |                                                                                   | EKITEKO<br>EKINTZA                       |                          |                                                     | SAMA, LEPOA                 |
|                                                                  |                          |                                      |                                                                                   |                                          | MUGITU<br>GABE           |                                                     |                             |
|                                                                  |                          |                                      |                                                                                   |                                          | EDARI<br>GASDUNA         |                                                     |                             |
| RUTENIOA                                                         |                          | DUKEAREN<br>EMAZTEA                  |                                                                                   |                                          |                          | DAUKAT (AL-<br>DERANTZIZ)                           |                             |
| "... ASKOK,<br>NEGAR<br>DANAK"                                   |                          | DESAGERTU-<br>TAKO MUSI-<br>KA TALDE |                                                                                   |                                          |                          | IREKIDURA,<br>SARBIDE                               |                             |
|                                                                  |                          |                                      | NEHOLAZ                                                                           |                                          |                          |                                                     | URANIOAREN<br>IKURRA        |
|                                                                  |                          |                                      | ... HOC,<br>LATINEZKO<br>LOKUZIOA                                                 |                                          |                          |                                                     | INDIOAREN<br>IKURRA         |
| KANPORA                                                          |                          |                                      |                                                                                   |                                          | ORDAINDU<br>GABE         |                                                     |                             |
| TAUPADAK<br>EMANEZ                                               |                          |                                      |                                                                                   |                                          | KILOA                    |                                                     |                             |
|                                                                  |                          |                                      |                                                                                   |                                          |                          | ARGAZKI<br>BATEN<br>AZPIAN<br>JARTZEN DEN<br>TESTUA |                             |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | L | U |   |   |   | B | Z |   |
| Y | E | B | R | A |   | H | E | P |
|   |   | H | A | T | U |   | L | E |
| B | E | R | E | Z | M | K | A | R |
| N | M | O | L | D | E | I | R | I |
| B | A | L | U | A | H | O | T | Z |
|   |   | I | G | O | R | U | S | A |
| H | A | M | A | R | R | E | N | G |
| R | U | R | D | U | K | E | S | A |
| B | A | R | R | E | I | N | O | L |
|   | U | T | I | K | A | N | D | O |
| T | A | U | P | A | D | A | K | A |
|   |   |   |   |   |   | O | I | N |

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURA

## CERNeko partikula azeleragailuak marka berria ezarri du

GENEVAN (Suitza) dagoen CERN zentroko partikula azeleragailuak marka berria ezarri zuen azaroaren 30ean, partikulen energiaren alorrean. Azeleragailu berria 2008an abian jarri zen, baina handik lasterrera matxura izan eta 2009ko azarora arte ez da berriro abiarazi. Azaroaren 23an partikulen arteko lehenengo talkak behatu ziren; eta azaroaren 29an 0,98 TeV, hau da ia mila milioi elektro-volteko partikulak detektatu zituzten, ordura arteko marka guztiak hautsiz. Hurrengo egunean 1,18 TeVeko partikulak antzeman zituzten, eta hori da oraingoz munduko markatzat hartuko dena.

Une honetan, aurreikusitako etenaldian dago azeleragailua, eta otsailean abiatuko da berriro helburu askoz ere handiagoekin, 7 TeVeko energia duten partikulak lortu nahi baitituzte. Bitartean, azken hilabeteen lortutako talken datuak mundu osoko hainbat ordenagailutan aztertuko dituzte. Gogoratu dezagun ikerketa honen helburuak direla, besteak beste, hutsaren energiaren izaera zein unibertsoaren lehen unean zegoen egoera hobeto ulertzea.



UBPHENO.PHYSICS.BUFFALO.EDU

## Kopenhageko hitzarmena, hutsaren hurrengoa

MUNDUKO 193 estatutako ordezkariak bildu dira Kopenhagen eta ez dira ia ezertan ados jarri. Azken egunean parranda egin zuten hainbat agintarik hiru orriko dokumentua sinatzeko adostasuna lortu omen zuten, eta bertan mende honen amaieran tenperaturaren igoera 2° C baino txikiagoa izateko borondatea azaldu dute.

Benetan iragarria, lotsagarria eta mingarria izan da Kopenhagekoa: denon patrikatik ateratako diruaren kontura tintaz betetako hiru orriko dokumentua baino ez dute sinatzerik izan. Beste hitz batzuekin esanda: oraingo belaunaldia ez da gai arazoari aurre egiteko, eta gure ondokoei utziko diegu ataza. Hori idatzi izan balute, bederen, adostutako dokumentuak egiazko egoera islatuko luke, eta ez orain gauden alegiazko egoera hau.



ECOHUELLAS.ORG

## Oxigenoa garraiatzeko gai diren partikula sintetikoak

Ikerlari estatubatuar talde batek odolak oxigenoa garraiatzeko duen ahalmena emulatu du, partikula sintetiko bidez. Anemia duten pertsonen laguntzeko bide interesgarria zabaldu da era horretan. <http://ttiki.com/8862> (Frantsesez)

## Kirol taldeen zaleek, gozatu ahal izateko, sufritu egin behar dute

AEBetako Texas eta Michiganeko unibertsitateetako ikerlari batzuek kirol taldeen zaleen portaera aztertu dute. Ondorioetako bat izan da gozamena eta sufrimendua lotuta daudela haiengan. <http://ttiki.com/8865> (Gaztelaniaz)

## Komikiak baliagarriak dira irakurtzen ikasteko

Egunkarietan 1890az geroztik komikiak argitaratzen baldin badira ere, liburuazain eta idazle askorentzat komikiak txorakeriak baino ez dira. AEBetako Illinois Unibertsitateko iker-tzaile batek aztertu egin du irakurtzen ikasteko komikiak daukan garrantzia. <http://ttiki.com/8866> (Gaztelaniaz)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [zientzia@argia.com](mailto:zientzia@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

**iametza**  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Zimurrei irri

*LATHYRUS SATIVUS* eta *Lathyrus cicera*, aixkolen aihentxo kiribiletan kateatuta ibili gara duela aste pare bat edo... Eta urtetan inolako konturik sortuko ez duten landaretxo hauek hara non azaltzen zaizkidan, berriro, antiojoen aurrera. Koipeetara emaniko Espainiako "Instituto de la Grasa" eta Sevillako unibertsitate bateko ikerlariek elkarlanean oraintsu burutu duten lan batean zera frogatu omen dute:

aixkolak lurpean heltzen dituen haziek berebiziko eragin antioxidatzailea dutela. Hau da, gure gorputzaren etengabeko zahartzea leundu eta mantso-tu egiten dute. Konparazio batera, antzeko eragina izatea-



STEN PORSE

Goji (*Lycium barbarum*) landarearen fruituak.

gatik ezagunak diren eskuzuria (*Lupinus albus*), txitxirio edo barbantzu (*Cicer arietinum*) edo soja (*Glycine max*) berak baino bi aldiz eraginkorragoak dira aixkolak. Hau irakurrita, baldinbaitere ez al zara lirin zimurak teinkatu eta leuntzeko aixkolak lapikokadaka irensten hasiko. Kontuz, tamainan jan beharrekoa da. Dietaren oinarri izanez gero latirismoa edo neurolatirismoa sor dezake, hau da, bizkarrezurra kaltetzen duen paraplejia. Espainian badute aixkola gehitxo jatearen ondorio latzen berri, lehengo mendeko gerrate nagusiaren ondorengo goseteen tripa-zorriak berdintze aldera gari-irin urria ugartzeko aixkol ilartxoan irina nahasten baitzitzaion. Gaur egun, batik bat, Indian pairatzen dute.

Zahartzea atzeratzen omen duten antioxidatzaileen artean, Goji (*Lycium barbarum*) landarearen koxkorren pasak dabilta mingainez mihi. Diamante gorria deitzen zaio Himalaia aldeko gojipasa honi eta milaka urtetan ikertu eta erabili izan dute inguru haietan. Agidanean, izugarritzko mesedea dakarkio gorputzari eta moda-modan dago. Gosariero hartzen dut neuk eta hizkuntzetan doktore izanagatik kirolari amorratua den lagun frantses bati emana diot, ea nondik edo handik inolako mesederik igartzen ote duen garuna ez bestearen pasaden ondorengo gorputzaldietan. Irriz hartu zuen, gojiaren albo-ondorio bakarraren ezjakin: eutsi ezin den etengabeko irribarrea.

## Irakurleak galdezka

Almeza bat (*Celtis australis*) eduki dugu etxean azken hamabost urteotan. Gasteizko parke batean hartu genuen hazia; tetra-brik batean eman zuen haurtzaroa; lorontzi txiki batera pasa genuen gero, batzuetan hotzez, bestetan egarriz... Egundoko kalamidadeak pasarazi dizkiogu gizajoari. Azkenean nahi gabe bonsaitu dugu, ez baitu metro erditik gora egin. Eta kontzientzia txarrak eraginda, amonaren baratzean landatu dugu. Zer espero liteke orain? Berreskuratuko al du galdutako denbora? Hartuko al du inoiz Madrilgo Prado museoaren aurrean dagoen almeza tantaiaren neurria?

Martin Rezola (Gasteiz).

Kaixo Martin. Basaka ere deitzen zaio almezari. Orain zer espero daitekeen? Jar zaitez minutu soil batez haren tetra-brikean. Eta orain amonaren baratzean. Kartzelako ziegatik paradisura igaro da. Zer espero? Juxtu-juxtuan irauten egon denak bizi eta hazteko tokia topatu du. 25 metrotik gora ere hazi daiteke, beraz badu zer egina. Hasteko sustraiak botako ditu eta nahikoa jaki eta ur aurkitzen duenean etengabe gorantz joko du. Zu lasai, denbora ez du berreskuratuko baina honez gero beharko lukeen tamaina bai. Puja berriak nola luzatzen dituen ikusi eta ardatz bat indartu nahi izanez gero besteak kendu, gupidarik gabe moztu, gaztetan. Gero ezta ukitu ere, kontuz beraz non jarri duzun. Ea urte batzuk barru amonaren etxea hurbilegi dagoela eta hura bota beharrean zaren... Eta orain arteko torturen ordainetan pixka bat zaindu: simaurra eman, uda parte gorrienean ureztatu... Egia esanda ez du asko eskatzen. Zorionak almezari eta bioi.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

**Lore-lan**  
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak  
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxa: 943 79 49 12 • [lorelan@euskalnet.net](mailto:lorelan@euskalnet.net)

# Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Putetxe ilunetatik Unescoren argitara

BUENOS AIRES, 1880KO HAMARKADA. Tango izeneko dantza eta musika estiloa sortu zen auzunerik xeheenetan. Tangoak habanerarekin partekatzen du genealogia, baina Río de la Platako ibaiertzeko ukitu berezia du. Garai hartan, habanera, polka, mazurka eta vals bat entzuten eta dantzatzeko zituzten hiriko biztanle zuriak; beltzek (biztanleen %25), aldiz, nahiago zuten perkusioak markatutako "candombe" a. 1870ean bi milioi biztanle zituen Argentinak eta 25 urtetan biztanleria bikoiztu egin zen. XIX. mende amaieratu baino lehen Buenos Aires hiriburuak bi milioi biztanle zituen, horietatik %50 lehen belaunaldiko etorkinak. Giro hartan, erritmo berriak iturri askotatik edan zuen, mundu guztitik etorritako aireak arnastu zituen eta Buenos Aireseko taberna zulo ilunen eta putetxeen ukitua eman zien.

Doinu berria dantzatzeko araurik ez zegoen. Ez araurik eta ez muga moralik, giro haietan emakume bakarrak prostitutak zirelako. Hala, probokazioa, gertutasuna eta sentsualitatea nagusitu ziren dantza berrian. Abestien hitzak ere bat zetozen dantza lizunarekin. Horra lehen tangoen izenburu argigarri batzuk: *Dos sin sacarla, Qué polvo con tanto viento, Con qué tropiezo que no entra, Siete pulgadas...*

Buenos Airesko gazte aberatsak ez zuten erreparorik auzune xeheetara jaitsi eta doinu berriak gozatzeko. Baina, noski, tangoa ezin zuten beren etxeetan entzun edo giro bereko andereñoekin dantzatu.

Buenos Airesen ez, baina Parisen bai. Gazte argentinarrek Europara eraman zuten tangoa. Beste hainbat lekutan onartezina zena gustura hartu zuten XX. mende hasierako Pariseko saloi irekietan, Montparnasseko Ba Bulierren edo Renoirrek margotutako Moulin de la Galletten. Parisen gerta-



**Tangoa Buenos Airesko kaleetan sortu zen. Eta gaur egun mundu osoko antzokietara zabaldu den arren, ez da Argentinako hiriburuko kaleetatik desagertu.**

tzen zen guztia *chic* zen Europako gainerako herrialdeetan eta, hala, modaren hiriburutik kontinente osora zabaldu zen tangoa. Gerra aurreko modako dantza izan zen. Pio X.ak debekatu egin zuen eta Kaiserrak bere ofizialei tangoa dantzatzea galarazi zien. Baina berandu zen; arakasta lortua zuen ordurako.

Egun tangoa heldua da, eta gorabehera eta polemika guztien gainetik dago. Unescok gizon-emakume guztion ondare izendatu berri du, "kultura aniztasuna eta elkarrizketa sustatzen dituelako". Hori gutxi balitz, Frankfurtoko Unibertsitateko Cynthia Quirogak burututako ikerketa baten arabera, estresa gutxitzen du kortisola murrizten duelako eta, testosterona areagotzen duenez, kitzikagarri sexual naturala da.

## Arrastoak

### Espartako odoltsuena telebistan

*SPARTACUS: BLOOD AND SAND* izenburuko telesaila estreinatuko da urtarril honetan AEBetan. Espartako inoizko gladiatorerik ezagunena izan zen, milaka esklaburen buru Erromaren kontrako matxinada zuzendu zuelako. K.a. 73. urtean erromatar armada eta Galia Zisalpinako prokotsula mendea hartu zituen, baina, azkenean Marko Lizinio Krasok Rhedion-en esklaboak garaitu zituen.

1960an Stanley Kubrickek esklaboari buruzko filma egin zuen, mccarthismoak mehatxatutako Howard Fasten nobelan oinarrituta. Andy Whitfield australiarra (argazkian) protagonista duen telesaio berriak, ordea, ez die bereziki iturri historikoei erreparatu; ekoizleen esanetan, telebistarako ikus-kizuna egitea izan da beren helburu nagusia. Horretarako, ordenagailu bidezko efektu bereziak eta, azpitutluak dioen moduan, odola eta harea erabili dituzte. Batez ere, odola.

WWW.THRFEED.COM



## Jean Lissar

Aiherra (Baxenabarre), 1948. Soziologia ikasketak egina. Maoista eta CFDT sindikatuko kide ohia. Erizaintza izan du ogibide. Ipar Euskal Herriko Berdeen bozeramailea eta Akitania Erregioko kontseilaria da gaur egun: "Hogei urteko lanaren ondoren, gure ideiak instituzioetan eta eguneroko praktika politikoan zutik jartzeko garaia heldu da" erran digu Itsasun (Lapurdi) bizi den aiertarrak.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

# «Ekologiari buruzko ideia aldatu behar da ekonomia aldatzeko»

Akitaniako Kontseiluko bozak mar txoan eginen dira: 14an lehen itzulia, 21ean bigarrena. Alderdi sozialistako (PS) Alain Rousset da Akitania Erregioko presidentea. Azken bi legealdietan (12 urtez), PSk gehiengo osoz gobernatu du Berdeak alderdiaren sostenguekin. Europako Parlamenturako azken bozetan Berdeek lideratutako Europe Ecologie zerrendak emaitza historikoak lortu zituen: "14 eurodiputatu ditugu Frantzian, PSk bezala. Hautesleek Berdeen aldeko bozak berritzen badituzte nolabaiteko aldaketa izan liteke Akitaniako Gobernuan" erran digu lurralde horretako kontseilari Jean Lissarrek.

Lurraldeen erreforma legea ari da lantzen Frantzian. Hori dela eta, datorren legealdiak 2014ra arte iraunen du, hots, lau urtekoa izanen da.

**Nola azalduko zenuke Europe Ecologie hautagaitzak ukan zuen arrakasta?**

Arrazoietakoa bat zerrenda-buruen karisma izan zen: Daniel Cohn-Bendit edo Eva Jolyk, besteak beste, casting ona osatu zuten. Halaber, konparazione, euskaldunon zerrendako [Sud-Ouest] José Bové eta Catherine Grèze, herritarren ondo-ondoan ari diren itzal handiko militanteak dira. Bestalde, PSk barne arazo anitz ditu. Frantziako presidentziarako kandidatearen inguruan kalapita handiak ditu. Bere politika Nicolas Sarkozyren politikaren aurkakoan oinarritu da azken bost urteetan. Alderdi sozialistak ez die herritarrei ezkerreko politika zer den azaltzen, boz horietan ere ez zuen Europa zer den azaldu. Ezkerreko hautesle askok ez zuen onartu eta gure alde egin zuen.

**Martxoko erregio bozei begira Aquitaine Ecologie hautagaitza aurkeztu duzue orain gutxi. ABri gonbita egin diozue zuen zerrendan parte hartzeko.**

Europako bozen biharamunean egin genion proposamena ABri. Iparraldean erdietsi genuen arrakasta ABrekin izaniko harremana eta lan dinamikoaren ondorioa izan zen. Adibidez, Biarnoko eta Euskal Herriko zenbait kantonamendu konparaturik, laborantza sektorea nagusi den eskualdeetan bereziki, batez beste, %5 puntuko aldea lortu genuen Biarnokoekikoan. Gure zerrendek bozen %16 erdietsi zuten eta Biarnokoek %12. Lau puntuko diferentzia hori abertzaleen ekarpenari esker izan zen. Hartakoz, ABri elkarrekin segitzea proposatu diegu.

### Proposamena ez da gauzatu, alta.

ABko Biltzar Nagusiak lauzpabost boz eskasez ez du onartu gure proposamena. Abertzaleek, irudiz, EHBai koalizioa osatuko dute. Eta domaia da, bilduko duten boz kopurua sinbolikoa izanen baita berriz ere. Zorigaitzez, abertzaleen ideiek ez dute politika praktikoan eragiten.

### Zer lor zezaketen abertzaleek Berdeekin joanez gero?

Hasteko, Europako bozetan egin genuen bezalako kanpaina dinamiko egitea berriz ere. Bigarrenik, Akitaniako Kontseiluan hautetsi bat ukateko lekua eskaini diegu. Kontseilari abertzalea izateko xantza galdu dute.

### Kontseiluan PSren gobernuan aritu zarete azken bi legealdietan. Zein da lankidetzaz egiten duzun balorazioa?

Balorazioa edo bilana ez da txarra. Egia da guk PSrekin diferentzia handiak ditugula garapen sozialaren politikan. Alain Rousset sozialista izanik ere, enpresak eta proiektuak handizki kudeatzea maite ditu. Alabaina, Rousset gure bideetara hurbi-larazi dugu doi bat bederen. Mundua aldatzen ari dela ohartu da, konprenitu du ekonomia ezin dela lehen bezala kudeatu. Berdeek garatu nahi dugun ideia asko bereganatu du Roussetek. Erraterako, ni ekonomia sozialeko arduraduna naiz Kontseiluan. Akitaniako enpresetako lanpostuek ekonomiaren %10 osatzen dute. Ehuneko hori ez da aski ekonomia soziala indartzeko, alta. Guk lanpostu finko gehiago lortu nahi dugu. Xede hori betetzeko ezker aldeko indarrak batu eta azkartu nahi ditugu. Gure lema nagusiak hauxe dio: ekonomian aldaketa izan dadin ekologiarri buruzko ideia azkartu eta aldatu behar da.

### Zer estrategia garatu nahi duzue lema zabaltzeko?

Berdeek lema alor anitzetan aitzinatu direla ohartu gara azken urteetan. Egun, arinago eta aitzinera joateko alderdien harremanen arteko lehia irabazi behar dugu, gaur egungo *rapport de force* irabazi behar dugu, eta bereziki alderdi sozialistaren aurka.



**“Abertzaleek EHBai koalizioa osatuko dute berriz ere. Eta domaia da, bilduko duten boz kopurua berriz ere sinbolikoa izanen baita. Zorigaitzez beren ideiek ez dute politika praktikoan eragiten”.**

### Europe Ecologieren emaitzen haina lor dezakezue Akitanian?

Bai. Arrazoi berak erabiliko ditugu kanpainen. Sozialisten politika ez da hobetu, beraz, emaitza onak espero ditugu. Egia da Akitanian sozialisten aitzinetik ateratzea zaila dela, alabaina, hainbat lurraldetan ikerketa aburuak egin dira, eta horietako zenbaitetan presidentea berdea izanen dela diote inkestek. Île-de-Francen adibidez.

### Akitanian, lehen itzulian bakarka joanen zarete. Bigarrenean nola jokatu-ko duzue?

Orain arte sozialistek ez dute gure beharra ukan gobernu osatzeko, agian orain bai. Ganibeta luzeen gaua izanen da. Garaia da Berdeek aldarrikatu ditugun lema eta nahiak betetzeko. Jende anitz ohartu denez, guk proposatzen dugun bidea da urratu beharreko bide soziala. Beraz, emaitzen arabera betiere, hainbat gauza ez dugu aise onartuko. Alderdi sozialistak onartu beharko du gure programako hainbat puntu, edo gutxienez, politika egiteko gure ideiak kontuan hartu beharko ditu.

### Bozek eragin dezakete Sarkozy egiten ari den Estatuaren erreforman.

Lurralde gehienetan ezkerak aitzina egingen balu, eta guk, Berdeok, hainbat lehendakaritza irabaziko bagenitu, emaitzek boterearen kontrako balantzan eragin lezakete. Baina, egia erran, momentuz erregioek ez dute

egiazko boteririk, sozialisten politika uzkur eta ahula da. Nehork ez daki erreforma delakoa zer den, noraino joanen den. Bozen emaitzek indar korrelazioaren aldaketa ekarriker ere, inork ez daki aldaketak nola eragin dezakeen erregioetako instituzioetan eta deszentralizazioari buruzko politikan. Ez dut uste Frantziako Gobernuak Estatua deszentralizatzeke asmoa duenik, kontrakoa baizik, berzentralizazio politika ezarri nahi du. Deszentralizazioa estatu arazoa da Frantzian. Federalismoaren ideia desonestoa da.

### Iparraldeak izan dituen baliabideak galdu litezke...

Nehork ez daki ezer, ezta zer egin ere. *Pays* izendapenaren bidez garatutako instituzioak ezeztatuko dira. Kantonamenduko Sindikata Mistoa formularen bidez aterabidea xerkatzen ari direla diote. Nik ez dut bide horretatik arazoei erantzuteko molderik ikusten. Ni instituzio espezifikoaren aldekoa naiz. Frantziako legealdiak onartzen duena, Korsikako Biltzar gisako bat, bere exekutibo duena. Ez da utopia bat.

**Azpiegiturak hizpide:** Frantziako Burdinbide Sarea konpainiak (RFF) Abiadura Handiko Trena (LGV) bideragarria dela dio. RFFko buru Christian Maude-tek oraingo bidea hobetzea eta berria egitea xede bateragarriak direla dio.

RFFren dosierrean gezur asko dira. Aurka dauden elkarteek aise des-

muntatu dute dosierra, baita gezurak agerrarazi ere CADEk sustatu dituen eztabaida publikoetan. Suitzako kabinetaren ikerketak agertu zuen oraingo burdinbidearekin posible dela jendea eta merkantziak ibilaraztea beste hamar urtez. Proiektuaren aurka gaudenok TGVren aurka gaudela dio RFFk. Baina jendeak konprenitu du hori ere gezurra dela, eta RFFren helburua ez dela trenbidea hobetzea soilik.

### Nola ikusten duzu trenbidearen afera Hegoaldereko harremanetan?

Euskal Y delako trenbidea jendearen garraiatzeko dela ikusten dugu hemendik, funtsean trenbidea merkantzien garraiorako biziki guti erabiliko dutela. Finean, AHT jendea garraiatzeko izanen da. RFFk trenbide berria (LGV) merkantziendako dela erraten du, baina hori estakurua da, gezurra. Iparraldeko eta Hegoaldeko azpiegituren artean ez da lotura praktikoa izanen. Afera kudeatu duen Europako komisarioak proiektua inkoherentea dela dio, alegia, Iparraldean merkantzia garraiatzeaz ari dira eta Hegoaldean jendea eramateaz. Hori da proiektuaren kontraesan handiena. Frantziako Gobernuak kezko oihala bat zabaldu du giblean dauden interesak tapatzeko.

### Zertan da afera?

Burdinbide berriaren aurkako mobilizazioak azkartzen ari dira. Urtarrileko 23an Hendaian manifestatuko gara berriz ere. Manifestazioa bozetarako test garrantzizkoa izanen da, trenbide berria kanpainaren ardatza izaki. Alain Rousset trenbide berria egitearen aldekoa da. Aquitaine Eco-

logiek jende anitzen boza eta sostengua bildu litzake Euskal Herrian, Roussetek badaki hori.

### Trenbideen garapenari dagokionez, zer proposatzen duzue?

Guk, besteak beste, Topo trenaren segidako bidea egitea proposatu dugu. Eta ez bakarrik hiriko bazterreko geltoki nagusiekin lotzeko. Finantzaziori buruz ohartu gara ez dela sos aski bi azpiegiturak garatzeko, hots, AHT erraldoiak tokian tokiko azpiegiturak garatzeko behar diren sosa xahutu duela. Akitanian 600 milioi euro aurreikusitako dira, baina zati handiena AHTrentzat izanen da.

**"PSk onartu beharko du gure programako hainbat puntu, edo gutxienez, bere politika egiteko gure ideiak kontuan hartu beharko ditu"**

### Eurohiria delakoaz zer iritzi duzu?

Koonurbazioa handituz doa, 600.000 bizilagun gara. Hiri hau antolatzea ez da aise, baina aireportuen gaia, adibidez, guk argi eta garbi diogu bi aireportuak [Hondarribia eta Biarritzekoak] garatu daitezkeela, eta bien inguruan, kronobusen eta ibilbide laburreko trenen bidez, zerbitzu osagarriak eskaini behar direla.

### Bizi! mugimendua plazaratu da berriki. Garraioaren gaiaz arduratzen da, besteak beste. Zer deritzozu?

Mugimendua biziki interesgarria da,

zenbait abertzalek bultzatua. Abertzaleen sektore horietan benetako aldaketa bat ematen ari da, eta kontent naiz. Berdeendako gazteak berriz ere mugitzen direla ikustea, gure errebindikazio, lema eta helburuen inguruan ari direla ikustea gauza handia da. Gaur egun, hori da bidea gai sozialetan aldaketa eman dadin.

### Euskal gatazka bideratzeko ekimene-tan agertu zara Berdeen izenean. Nola ikusten duzu egoera gaur egun?

Ezker abertzaleak irtenbide baten aldeko proposamena egin du... Proposamena ez izatea soilik taktikoa da ene esperantza. Iruditzen zait Loiolako negoziazioen aldi bakoitzeko sektore gehiago ari direla akordioa bilatzen. Ohartu dira ez dela irabazterik, garai batean uste zuten bezala. Ene irudiko intentsitate apaleko bortizkeriaren eraginez segitzen badugu, egoera politikoa dramatikoa bilakatuko da.

(...)

Konparazione, Iparraldean abertzaleek eta ABkoek partikularki, EHBai zerrenda osatu dute berriz ere Batasunekoei laguntza ekartzeko. Abertzaleak ez daitezela elkarrengandik gehiago aldentu, gatazka bideratu ahal izateko. Baina horren arriskua da halaber, beti zurrumbilo beraren inguruan ibiltzea, eta egoera txar hau luzaz egonkortzea. AB gurekin koalizioan joan liteke bozetara, baina Batasunak "traidoreak" izateaz akusatuko lituzke berriz ere. Errespetatzen dut beren erabakia, baina zirkulu horretatik ateratzen ez bagara ez dugu inoiz politika eraginkorra eginen. ■



**laia**  
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia  
Tel.: 943 646 309  
info@laiaerretegia.com

www.laiaerretegia.com

Joaquim Dolz-Mestre  
Genevako Unibertsitateko katedraduna

## «Hizkuntzaren estatusak eragin betea du ikaskuntzan»

Eleaniztasuna, hizkuntzen irakaskuntza bateratua, hizkuntz transferentzia... Hezkuntzan ahoz aho dabiltzan terminoak dira, sarri bakoitzak zer adierazi nahi duen ondo jakin gabe. Kontzeptuok astintzen lagundu digu Dolz-Mestre katedradunak.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

AZAROKO SINPOSIOAN, EHUn, (Eleaniztasunaren eta Hizkuntzen Irakaskuntza Bateratuari buruzkoa) berrogei bat lagunek hartu zuten parte. Hainbat herrialdeetatik etorritakoak ziren: Frantzia, Suitza, Suedia, Aljeria, Argentina, Brasil, Kamerun eta Euskal Herriko iker-tzaileak ziren tartean, denak ere irakaskuntza arloan lanean ari direnak. Sinposioaren antolatze lanetan parte hartu zuen Dolz-Mestrek (Morella, Herrialde Katalanak, 1957). Hizkuntzen Didaktikan eta Irakasleen Prestakuntzan katedraduna da Genevako Unibertsitatean baina EHUn, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean dugu ikas-turte akademiko honetako lehen seihilekoan, HIJE (Hizkuntzen Jabekuntza eta Erabilerak, [www.elebilab.com](http://www.elebilab.com)) ikertaldearekin batera lanean, Ikerbasqueren kontratu bati esker.

Eleaniztasunaz eta hizkuntzen irakaskuntza bateratuaz jardun zenuten bi egunez. Ona izango da terminoak zehaztea...



Sinposioaren antolatzaileetakoak, Joaquim Dolz-Mestre eta Itziar Idiazabal. Dolz-Mestreren hausnarketa transferentziari buruz: Zer ikasten duzu euskaraz ipuin bat kontatzen ikasten duzunean, gaztelaniaz kontatzeko balioko dizuna? Zein dira transferitzen diren abildadeak? Ez dakigu oraindik.

Hitz bitan esanda, eleaniztasunaz jarduteak esan nahi du hizkuntzen presentzia aztertuko dugula, hau da, hizkuntza bat baino gehiagorena. Hortaz, esan behar da, balitekeela elebakartasuna salbuespen izatea, betidanik. Genevan, adibidez, ikasleek ehun lehen hizkuntza baino gehiago dituzte eta irakasleak frantsesa, alemana edo ingelese lantzen dituenean, badaki ikasleek heterogeneotasun handia dutela. Bada, ezer irakasteko garaian kontuan hartu behar da egoera hori, hainbat jatorritako haurren egoera soziolinguistikoa ez baita nola-halako kontua. Eleaniztasunaz, gurean, zera ulertzen dugu, hizkuntzen arteko interakzioa irakaskuntzan.

### Eta "Hizkuntzen irakaskuntza bateratua"...

Ikastetxe batean hiru hizkuntza irakasten badira, gutxienez hiruren irakaskuntza koordinatu behar da, sinergia halako bat sortu behar da eskola curriculumean, irakasle eta ikasleen artean, hizkuntzen irakaskuntza artez antolatzeko. Hainbat hizkuntzen erabilera ikastetxean nola antolatu da aztergaia. Irakaskuntzari dagokionez, hori. Irakaskuntzari denaz bezainbatean, berriz, hainbat hizkuntzatan egiten den lanak ikasleen hizkuntza gaitasunei laguntzen ote dien, edota zertan laguntzen dien, jakin nahi dugu. Ikerketa esparru zabala da. Oraindik ez dakigu nola, baina ziurtzat jotzen dugu hizkuntzak ikasteak ikasleari hizkuntza eta adimen-gaitasun orokorrak garatzen laguntzen diola. Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, orduan eta aukera gehiago dugu hizkuntza hobeki baliatzeko, bataren eta bestearen arteko kontraste eta konparazioak eginez, batik bat. Hizkuntzen irakaskuntza bateratuak esan

nahi du, era berean, hizkuntzok irakasgaietan nola integratu erabaki behar dugula. Alegia, ikastetxean lau hizkuntza irakasten badira, ikasgai bakoitza zein hizkuntzatan irakatsi pentsatu eta erabaki beharko dela. Jo dezagun, ingelesaren kasua ikastola askotan: ziklo batean, gizarte zientziak ingelesez irakasten dira; beste batzuetan, urtero irakasgai ezber-

### "Hizkuntza ez da ikasten bularretik jasotzen dena bezala. Hizkuntza ikastekotan nahitaezkoa da harremana"

dina irakasten da ingelesez... Irakaskuntza bateratuak ikastetxean diren hizkuntza mintegien arteko artikulazioa esan nahi du, sinergia sortzea haurrek hainbat hizkuntza ikas ditzaten, haurraren —edota helduaren— hizkuntzaren garapenean eragin dezaten, eta nola integratu hizkuntzak gai ezberdinetan.

### Eta irakatsi beharreko hizkuntza horien artean bat minorizatua denean?

Hizkuntza minorizatuan lan egiten badugu, eztabaidatu beharko da hizkuntza hari denbora gehiago ematen diogun ala ez, zuzenak izateko eta hizkuntza hura modu integratuan ikas dadin. Hori da, adibidez, euskararen kasuan murgiltze eredura jotzeko arrazoietakoa bat.

### Zazpi herrialdetako ikertzaileak bildu dituzue sinposioan. Arazoak berdinak dira denetan?

Bai eta ez. Ponentzietako bat amazighari buruzkoa zen. Magreben oso zabalduta dago hizkuntza, Sahararaino heltzen da. Baditu, adibidez, euskararekiko paralelota-

sunak: biak ere hizkuntza minorizatuak dira; estatu batean baino gehiagotan hitz egiten dira eta horrek espezifikotasunak dakartza hezkuntza sisteman... Amazigharen irakaskuntza onartuta dago Kabilian (Aljeria), baina ez herrialdeko leku guztietan, ezta Marokon ere. Bestalde, alde handia dute bi hizkuntzek: euskarak lege babes handia izan du, bultzada, estandarizazioa. Haiek ez dute egin hori. Oso gai polemikoa da amazigharen kasuan: batzuek bariatateak defendatzen dituzte, besteek estandar bat garatu beharra azpimarratzen dute, eskolan irakasteko. Gainera, idazketa sistema erabakitzen ere ez dira ados jartzen, dela arabieraren alfabetoa, alfabeto latino, edo alfabeto antzinakoa bat aukeratu, eztabaidan dira...

### Sinposioan zehar eurrez erabilitako hitza, interakzioa.

Hizkuntza bat ez da ikasten bularretik jasotzen dena bezala. Hizkuntza ikastekotan nahitaezkoa da harremana. Interakzioa garrantzizkoa da, eta interakzio motaren arabera sortzen diren harremanak ere bai. Esaterako, etxean amak euskaraz eta aita gaztelaniaz hitz egiten badute, baina elkarri gaztelaniaz hitz egiten badiote, oso litekeena da umeak ere —euskaraz jakinagatik ere—, gaztelania aukeratzea, gurasoak ere gaztelaniaz mintzatzaren zaizkiolako elkarri. Sinposioan bildu ziren ikertzaileek, denek abiapuntu bera dute: interakzio sozio-diskurtsiboaren paradigma. Hizkuntza bat ikastea ez da jaioztatik dohain baten azaleratzea. Hizkuntza interakzio sozialen bidez ikasten da: elkarriketan, besteekiko solasean. Hizkuntza erabiltzen ez bada, solas askorik ez badago, zailago da ikastea. Hizkuntza minorizatuaren kasuan,

Babeslea: HABE

**HADE**  
Helduen Alfabetaze  
Berreuskalduntze Erakundea

105 eskaltegi  
1.500 irakasle  
39.000 ikasle

**munduoro**  
euskaraz

www.habe.euskadi.net  
www.euskara.euskadi.net

inguruan ez badago interakziorik, orduan eta zailago.

**Diskurtsoari garrantzia ematen dio-zue zuek.**

Diskurtso bidez, testu bidez gauzatzen delako interakzio hori. Sinposioan bildu ziren ikertzaileek garrantzi handia ematen diote diskurtso motari eta testuen generoari. Ez da hitz egiten ikasten esaldi isolatu bidez, elkarriketa bidez baizik, ipuinen eta gainerako testu mota bidez baizik. Horretan bat gatoz sinposioan bildu ginen guztiok. Denok biltzen gaituen beste alderdi bat: hizkuntzen arteko erlazioak irakaskuntza eta ikaskuntzan aztertzen ditugu. Inork ere ez du hizkuntza bakarra kontuan harturik lan egiten. Alegia, hizkuntza jakin bat aztertzen badute ere, ikasleak ondoan dituen gainerako hizkuntzak ere kontuan hartzen dira. Ikertzaile askok immigrazioaren hizkuntzak aztertu zituzten, arazo berria Euskadin, Espainian eta Europa osoan. Gero eta ikasle gehiago ditugu ikasgelan, beste herrialde batzuetatik datozenak, familia hizkuntzak dakartzatenak. Hori ere oso kontuan hartu beharrekoa da.

**Transferentziaz jardun zenuten ondorioei eskainitako saioan. Hizkuntza batean ikasten dena –izan kontzeptu, izan jarrera–, beste batera transferitzen da?**

Hizkuntzari dagokionean, transferentziak esanahi bat baino gehiago du. Agerikoena, hizkuntza batetik bestera igarotzea. Ea, inork irakurtzen ikasten duenean, dela euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez... nola transferitzen du ikasi duen hori hizkuntza batetik bestera? Zer transferi liteke euskararen ikaskuntzatik gaztelaniara? Inportantea da gaia, baina oso zaila. Autore guztiek ez dute-eta konpetentzia bera berdin definitzen. Badirudi haurrak, edo helduak, estrategia orokor batzuk transferitzen dituela, irakurtzen edo hitz egiten hasten denean haur batek hizkuntza batetik bestera transferentziak egiten dituela. Hala ere, nola jakin sistema batean ikasten duzuna –hiz-



“Jatorri ezberdineko haurren egoera soziolinguistikoa ez da nola-halako kontua”.

kuntzetarik batean–, bestera transferi daitekeen, edo ezin daitekeen, eta zein diren haren ondorioak? Oso kontu delikatuak dugu hori.

**Ez dago jakiterik, oraingoz?**

Hala esango nuke. Zer ikasten duzu euskaraz ipuin bat kontatzen ikasten duzunean, gaztelaniaz kontatzeko balioko dizuna? Testuaren antolaera, baliteke. Hala ere badira genero batzuk hizkuntza halako bati loturik daudenak oso. Hizkuntzaren espezifikotasunari buruzko lan xehea eginkizun da oraindik. Nik, eman dezagun, gaitasun jakin batzuk ditut gaztelaniaz, frantsez, katalanez... idazteko, baina, orain, euskaraz ikasten ari eta eus-

**“Euskara ikasi eta gero, hiztunek gaztelaniara jotzen badute, zerbait ez dabil”**

karak dituen espezifikotasunak ikasi behar ditut. Transferentzia ez da automatikoa, erabatekoa. Zein dira transferitzen diren abildadeak? Nola funtzionatzen dute? Ez dakigu oraindik, ikertzen ari gara.

**Ikasgai den hizkuntzaren estatusaren garrantzia azpimarratu zen sin-**

**posioan. Behin eta berriz eta askotan esan zenuten hori.**

Adibidez, egoera diglosiko honean, euskararen eta gaztelaniaren erabilera sozialak berak dira, ala ez dira? Euskadin, badira 30, 40 urte, mugimendu handi bat abiarazi zela. Orduantxe sortu zen etxe hau ere, Euskal Herriko Unibertsitatea, Koldo Mitxelena tarteko zela. Patriarka... Erabilerari dagokionean, euskara B egoeran zegoen, familian erabiltzen zen, txakurrekin hitz egiteko baliatzen zen, ikaskuntzaren lehen aroan baino ez zen irakasten, neska-mutikoak hazi eta gaztelaniaz egiten zituzten goi mailako ikasketak, ez zen prentsan erabiltzen, ezta unibertsitatean ere. Horregatik diot, bada, hizkuntzaren estatusa B zela. Erabilera noblezik kanpo zegoen euskara, nahiz eta familia barruko erabilera ere noble izan, jakina. Sinposioan baieztatu dugunez, hizkuntzaren estatusak, ikaskuntzari dagokionean, eragin betea du. Batek hizkuntza ikas lezake familiarekin hitz egiteko, eta aldiz, medikuarekin hitz egiteko, gaztelaniaz jardun. Edo, bietara. Euskara, garai batean, ez zen medikuarekin hitz egiteko erabiltzen, ez zen epaitegietara sartzen, ez zen inoren testamentuan ageri, ezta prentsan ere... Hizkuntza bat esparru batzuetan bai baina beste batzue-

tan berdin erabiltzen ez baldin bada, estatusa ez da berdina.

### Euskararen estatusa aldatu da...

Estatusa aldakorra da, hemen eta munduan. Europan hizkuntza ofizial direnek ez dute estatus bera beste kontinenteetan. Gaztelania, adibidez, borrokan ari da AEBetan, han hizkuntza ofizial izateko; gainera, hor dira Puerto Rico, hor da Latinoamerikako emigrante andana. Gaztelaniak AEBetan duen estatusa ez da ingelesak duena. Era berean, gaztelaniak 60ko hamarkadan Alemanian zuen estatusa ez da gaur egun duena: aitortza soziala ezberdina da.

Beste alde batetik, gertakari batzuek hizkuntzen erabilera eragiten dute, gizarteak haiek gutxi edo asko baloratzea. Hizkuntza jakin batekiko jarrerak, berriz, delako hizkuntzari ematen zaion inportantziaren arabera ohi dira. Eta, beste jakingarri bat, hizkuntza minorizatuen balioa aztergai da beti. Gaztelania ez da minoritarioa AEBetan, baina bai minorizatu... Euskarara itzuliz, haurra, eta heldua, euskara ikasi arren berehala jabetzen da euskaraz hitz egin gabe ere bizi litekeela. Hots, euskararen estatusa —duela 30 urtetik hona egin duen aurrerakada itzela gorabehera—, ez da oraindik gaztelaniak duena. Are gutxiago Gasteizen. Hala ere, euskara erabiltzen da. Gasteizen, ari naiz. Duela 30 urte ez bezala. Agur formulak eta antzekoak besterik ez bada ere! Errotuluak elebitan daude. Euskaraz entzuten da... Andre Mari Zuria plazan bertan pailazo bat ikusita nago —neska gaztea zen—, umeak haren zerak jarraitzen eta, ume haietako batzuk gurasoei itzultzen. Sustapen lan handia egin da, eta euskarak gora egin du. Estatusari dagokionez, gaztelaniak presentzia handiago du, historiak agintzen duelako.

Gasteizen jarraiki —nahiz eta kasua bera den beste leku askotan—, ez da galera handia hainbeste diru eta energia jarri euskara erakusten eta, aldiz, erabilera hutsaren hurrena izatea? Eskolan bertan, ari naiz.

## Hizkuntza bik hirugarrena dakarte

“Duela ehun urte, edo duela berrogeita hamar urte, gure aitona-amonak euskaratik gaztelaniara igarotzen ziren herri txikitik hirira igaro eran. Askoren kasua da. Seme-alabei gaztelaniaz hitz egiten hasten ziren, adibidez. Interesgarria da ikustea zenbat jende igarotzen den hizkuntza batetik bestera, eta zergatik eta zertarako. Hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten dutenek —euskaldunek, kasurako—, hizkuntza gehiago ikasteko joera dute. Hau da, hizkuntza minorizatuak dauden

lekuetan hizkuntza gehiago ikasten dira. Gertakari soziolinguistikoa da. Holandar batek hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten du beti. Zailago da Amerikako estatubatuar batek, Erresuma Batuko batek, frantziar batek, madrildar batek... hizkuntza bat baino gehiago menderatzea. Ohikoagoa da hizkuntza minorizatuetatik datozenen artean, bereari eutsi eta bestearena ikasteko interes handiagoa dutelako. Ezin da beti horrela dela esan, baina joera soziologikoak dira”.

Ez dut kritika izpirik egingo euskararen alde erabili den diruaren kontura. Zera galdetzen badidazu: “Ondo iruditzen zaizu diru asko gastatzea armak egiten?”. Orduan bai, erantzungo nizuke. Baina kulturen gastatzeaz? Kulturen gastatzen dena gastatzen dela ere, aberasgarri iruditzen zait, beti. Gosea munduan? Bai, lehenetsiko nuke,

**“Irudi luke etsita zaudetela, hainbeste aurreratu eta gero ere! Nik ez dut ikuspegi negatibo hori, nire ikuspegia kritikoa da. Euskara ez da nahitaezko, praktikan, eta hori negatibo da euskara ikas dadin”**

baina ez jarri oposizioan eskolan eta eskola eta gero egiten denaren artean. Hori gizartearen arazoa da. Gizarteak proiektu bat baldin badu, lege bat, dioena hiritar guztiek bi hizkuntzak ikasteko eskubide eta betebeharra dutela, bete dezagun legea, eta euskara asteen ordu bat eman ez da ikasten. Ez euskara, ez ingelesa, ez ezer. Gizarteak hizkuntza bat baino gehiago ikas dadin nahi badu, bitartekoak jarri behar ditu.

### Hor dago koska, beharbada.

Irudi luke etsita zaudetela, hainbeste aurreratu eta gero ere! Nik ez dut ikuspegi negatibo hori, nire ikuspegia kritikoa da... Hizkuntzen erabilera orekatuagoa izan ledin nahiko nuke. Uste dut euskara ez dela nahitaezko, praktikan, eta hori negatiboa da euskara ikas dadin. “Zertarako ari gara ikasten?”. Ikasi eta gero, hitzunek gaztelaniara jotzen badute, zerbait ez dabil. Erabilera finkatu beharra dago. Batzuek hizkuntza normalizazioa kritikatzeko badute ere, gizarte proiektu bat dago martxan, gizarte horretako kideek bi hizkuntzak jakin ditzaten. Proiektu duina iruditzen zait, eta duina iruditzen zait hirugarren eta laugarren hizkuntza ikastea ere. Ez dago arazorik. Ados nago eskola eleaniztun izan dadin. Ea ikasle guztiek hizkuntza guztiak menderatzen dituzten, frantsesez, alemanez, ingelesez egiten duguna ez dadin izan aitzakia, euskara ikasteko eskubide eta betebeharra saihesteko.

### Jakinaraziko diogu Isabel Celaa Hezkuntza sailburuari...

Ezin da hizkuntza inposatu, ados. Hizkuntzak komunikazio tresna izan daitezen egin behar da lan, eraikitze kolektiboaren giltza, ez gizarteko kideen arteko gerra pizteko aitzakia. ■

# Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

## Zentimoak Euskarabideari

NAFARROAKO AEK eta IKA euskaltegiatiko zenbait ikaslek zentimotan itzuli dizkiote Euskarabideari aurten jasotako bekak. 2009an, sei eta hogeita bost euro arteko bekak jaso dituzte euskara ikasteagatik. Iaz 20.000 euro eman zituen Nafarroako Gobernuak eta aurten 9.000 euro. Euskaltegiatiko 1.600 ikasleek beka eskaera egin izan balute, bost euro baino apurtxo bat gehiago jasoko zukeen bakoitzak. Bektara zuzendutako diru kopurua, gainera, Nafarroako euskaltegiatiko diru-laguntzetatik hartu du Gobernuak.

## Espainiako Kongresuak nafar ikastolei bi milioi

EUSKO JAURLARITZAK Nafarroako eta Iparraldeko ikastolei 1,9 milioi euro ematen zien orain arte. Sanzen Gobernuak diru hori jasotzeko uko egin dio ordea, Jaurlaritzak Nafarroako hezkuntza sistema ukitzerik ez duelako nahi. Orain Espainiako Kongresuak onartu du bi milioi euro ematea Nafarroako Ikastolen Elkarteari.

## 46tik 35 milioi eurora

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK 904 milioi euroko aurrekontua izango du 2010ean, iaz baino %1,01 gehiago. Sail batek baino gehiagok behe-

rakada nozituko du, eta handiena, Kultura eta Euskara Departamentuak. 2009an 46 milioi euro izan ditu eskura eta 2010ean 35 milioi izango ditu, %24 gutxiago.

## Hedabideen larritasunaz

TOPAGUNEKO, Euskarazko Hedabideetako eta NafarPresseko ordezkariak eskatu diote Xabier Azanzari eta Nafarroako Parlamentuari euskarazko hedabideen egoera bideratzeko. Aurten diru-laguntzarik gabe geratu direla salatu dute eta esan dute hedabide asko egoera larrian utzi dituztela, eta baten batek Ttipi-Ttaparen bidea jarraitzea behartua ikus lezakeela bere burua.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@DOAN) e-postaz: [www.argaia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argaia.com/harpidetza_haria.php)

## BAHEA

## TALAIAN

### Kredituen iturria ireki

2009 urtea krisi ekonomiko, sozial eta industrial larria sortu zuen finantza krisiaren erdian amaitu zen. 2010 zalanza askorekin hasi da, krisi horri dagokionez. Batzuek diote hondoa jotzen hasi dela, bide onean sartzen ari garela, eta beste batzuek ziurtatzen dute okerrera oraindik zain dugula. Hala ere, analista guztiek bat egiten dute langabeziak gora egiten jarraituko duela aurten. Joan den urtean onartutako ehunka enplegu erregulazio espediente (EEE) bukatzeaz daude, eta 90.000 euskalduni eragiten diete. Orain arte enpleguz behin-behinean suspendituta edo laneguna murriztuta egon badira ere, horietako espediente asko datorren aste edo hilabeteetan deuseztatutako kontratu bihur litezke. Hortik aurreikusi da langabeziak igotzen jarraituko duela Euskal Herrian.

Hain zuzen, EEE horiek eragin dituen arrazoiatako bat banku eta aurrezki kutxek enpresa txiki eta ertainen (ETE) aurrean hartutako jarrera zekena eta miserablea izan da. Hazkunde garaian bankuak eta aurrezki kutxak elikatzen ibili diren enpresak dira, kreditu interes handiak ordaintzen zituztelako, eta orain abandonaturik sentitzen dira. Merkatal Ganberen arabera, ETE horien %84k finantzazio arazoekin jarraitzen du. Orain, finantza erakundeek uko egiten diote beti beren konpromisoei eutsi izan dietenei kredituak emateari, eta enpresa horien aktibitatea kolapsatu egiten dute. Eta ito egiten dute, arnasarik gabe utzi, EEEa, ordainketa-etendura, kiebra eta dagokion itxiera beste irtenbiderik geratzen ez zaien arte. Enpresetako hondamendi ekonomiko eta langabezia handiagoak eragozteko, laguntza milioiunak jaso zituzten banku eta aurrezki kutxek, konpromisoa hartu behar lukete enpresentzako kredituen iturria irekitzeko, batez ere enpresa txiki eta ertainentzat, interes altuekin ito gabe.

Juan Mari Arregi

Berrian Ipar Euskal Herriko euskararen egoerari buruz egindako mahai-inguruan esanak:

Jakes Bortairu: "Euskalgintzak egin du, proposatu du, tiratu du, konbentzitu ditu hautetsiak, eta instituzio batzuk jokoan sartu dira. Baina ez dezagun amets egin. Estatua eta goi arduradun politikoak ez ditugu konbentzitu. Momentu batean hizkuntzaren alorrean behartuak sentitu dira bestelako politika bat eramatera. Etengabeko sokatira izan da, eta izanen da".

Hur Gorostiaga: "Egoera soziolinguistikoa dagoen bezala, funtsezkoa da haurrak ahal bezain goiz hastea ikastoletan. Eta bertze muga bat badugu oraindik: eraikinen arazoa. Frantzia indarrean dagoen Falloux Legeak inposatzen digun muga, gu eskola laiko izan arren. Hautetsiek aterabide bat atzeman beharko diote egoitzen arazoari".

Ione Josie: "Administrazioak bakarririk ezin du bere lana bururaino eramane, eta herri mugimenduak ere ez. Elkarren eskutik hartuz etor daiteke normalizazioa".

## Urte berrirako ametsa

### ENAM-EKO EZKER ABERTZALEAK

eztabaida prozesu interesgarria amaituko du hilaren hondarrean. Funtsean borroka armatuaren amaiera dago ezbaian, eta bada arrazoirik etorkizunari esperantzaz begiratzeko. Historikoki ENAM osoak modu bateratuan eman ditu bere urrats estrategikoak eta oraingoan ere molde horretan hartu dira erabaki nagusiak. Zatiketa saihestea izan da eta da ezker abertzalearen barruan dagoen kezka eta ardura nagusietakoa, egin beharreko bide berria

“denek elkarrekin” egitea. Eta oraingoz bederen denak adierazten du lortzen ari dela. Hori bai, pentsa liteke, halaber, kostako zaiola eta beharko duela laguntzarik.

Hau prozesua da, “prozesu demokratikoa” eztabaidarako txostenak izendatzen duenez, eta edozelako prozesutan atzera eta aurrera egin liteke. Kasu honetan ENAMek bere osagaiak jarri ditu mahai gainean: bide politiko soilen erabilera eta prozesu soberanista batetik, eta eman beharreko urratsetan aldebakartasuna eta Mitchell printzipioak. Hau da nik ulertzen dudana: ez da baldintza zehatzik jartzen borroka armatua alboratzeko, eta bide horretan ezker abertzaleak bere erabakiak hartuko ditu Estatuaren erreakzio positiboei itxaron barik. Hala ere, hau prozesu bat da, eta prozesu guztiek atzera eta aurrera egin dezakete. Eta hor bai, atzera-aurrera horretan bai eragin dezakete euskal politikako gainerako eragileek.

Espainiako Gobernuaren eragin asmoa, esate batera, agerikoa da. Hori bai, bere modura: mugimendurik esanguratsuenak prozesu hau gidatzen ari ziren buruzagien atxilo-

keta (Otegi, Diez...) eta Segiren aurkako operazioa izan dira. Eta etorriko direnak. Helburua? 50 urteko borroka armatuaren bukaera ez dadila



izan ENAMen hausnarketa eta erabakiaren ondorio, eta birmoldaketa hori ez dadila kapital politiko gisa baliatu indar soberanisten metaketan. Bestela esanda, ea lortzen duen zatiketa eta gutxiengo batek borroka armatuarekin jarraitzea. Irudika al daiteke edozelako bilgune burujabe zalerik edo bake prozesurik gutxieneko batek atentatuekin jarraitzen duen bitartean? Ez. Hori da, beraz, Estatuak bilatzen duena.

Burujabetza bilgune berri horren osagai izan daitezkeen indar sozio-politikoek ere eragin dezakete irakindian, zalantza barik, ekimena indartzen den neurrian, abertzaleen aldarrikapen historikoari bide emateaz gain, armen bidea behin-betiko atzean uzten laguntzen delako.

Eta Batasunaren jokaerak berak ere eragingo du, jakina. Alde horretatik, bada argi-itzalik. Argien artean da azken hilabeteetan gauzatzen ari den prozesua; itzalen artean egon liteke indar metaketa horretan abangardiaren gerizpe zabala hedatu gura izatea. 50 urteko historian abangardiaren ikusmoldea erabakigarria izan da ezker abertzalean eta garai berrietan tentaldi horretan

erortzea izan liteke Batasunak egin dezakeen akatsik handiena. Hor dago koska, nola orekatu ibilbide luzean metatutako kapital politikoa- ren indarra eta lidergo egokirako behar den eskuzabaltasuna.

**EZ** ez da txantxetakoia Batasuna egiten ari dena eta prozesu hori arrakastaz amai dadin ahalegin hori eskuzabaltasunez eta erantzukizunez lagundu behar da; bai euskal gizartearen bake nahiak hala eskatzen duelako, bai biolentzia politikoaren garaia behin-betiko atzean uzteko aukera berri baten aurrean gaudelako.

ENAMek baditu sinesgarritasun arazoak, Lizarra-Garazi eta Loiolako prozesuez egindako kudeaketatik datorkio urratsez urrats gairitu beharko duen langa hori. Gizarteak ulertzeko moduko ikuspegi autokritikoak biziki lagun diezaiokie horretan. Baina eragile sozio-politiko nagusiak ezin dira horretan ezkutatu prozesu honetan ezikusiarena egiteko. Bestela, bota dezala lehen harria sinesgarritasun arazorik ez duenak. Ez da kontua, alabaina, sinesgarritasunari buruzko ikerketa konparatiborik egitea, kontua gatazka bortitza behin betiko gairiditzea da. 1-10 eskalan ez dakit non gauden, baina bai aukera txikiena baliatu eta bultzatu behar dela. Jarrera inozoa izan liteke, baina inozoena eta koldarreina berdin segitzea da.

Gatazka honetan eroso dagoenak bakarrik egin lezake ezikusiarena. Nekea eta desinformazioaren ondorioz, halaber, euskal gizartean bada itsututako herritar multzo zabala. Batasunak berak jokatu behar du informazioaren karta hori. Legez kanpo izanda ez da samurra, bistan da, baina baditu bideak.

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## Kopenhagekoaren porrota Afrikak ordainduko du

Klimaren aldaketa eragozteko Kopenhagen abenduan burutu zen gailurrak porrot egin zuen. Asko eztabaidatu da noren erruz gertatu zen. Aldiz, galtzaile nagusietakoak zein diren jakina da: Afrikako ordezkariak gogor heldu ziren Danimarkara baina handik burumakur etxeratu.

KYOTORI LOTURIK OROITUKO DU historiak Kopenhageko porrota. Abenduaren 7tik 18ra bitartean Nazio Batuen Erakundearen babesean munduko agintariak urrats berriak zehaztu behar zituzten Lurra klimaren berotzetik babesteko baina biltzarrak ez zuen erditu inork sinatu ez zuen sasi-agiri bat baino. Nola laburbildu daiteke Kopenhagen gertatua historiaren epaiaren zain egon gabe?

Alejandro Nadal ekonomialari mexikar ezkertiarrek iritzi hau publikatu du *La Jornada*: “Gehienak bat datoz esateko [Kopenhagekoa] frakasoia izan zela. Baina hondamendi hori gobernuak zor zaie eta korporazioetan eta finantzetan dituzten konplizeei. Erakunde zibilek lortu zuten mozorroa eraztea gezur diplomatikoari eta biluzik utzi zituzten interesak, akordio serioa, loteslea eta epe egokietan mamitua lortzeko oztopo nagusi izan direnak. Ez da kasualitatea izan haiek zanpatu eta ez uztea biltzarraren aretoan sartzen; ez baitzitzaizen atetik ireki ezta behar bezala akreditaturik zetozen erakundeei ere”.

Kopenhageko azken agirian bilduta geratu ziren bai munduko beroketa gehienez bi gradutan mugatzen ahalegindu beharra eta bai bide horretan txiroenei urratsak ematen laguntzeko 2012ra arte 10.000

milioi dolar ematea, 2020ra artean 100.000 milioi gehiagoz osatu beharko direnak.

Kopenhagekoaren ifrentzua hiru puntuotan zehaztu du Nadalek. Bat, Kyotoko protokoloak aipatzen zuen derrigortasuna desagertu egin da hemen. Bi, tenperaturaren igoera egonkortzeko zientzialariek beti aipatu badute CO<sub>2</sub> gasa milioiko 350 partetan atxiki beharra, Kopenhagen hori ahaztu egin da: bi graduko beroketa onartzeak esan nahi du milioiko 450 CO<sub>2</sub> parte ontzat ematen direla, ugarte asko eta Afrika oso kalteturik aterako direla onartuz.

Hirugarren akatsa da, ziurrenik, larriena. Ekitateari agur esan diote potentzia handiek. Azken agiria AEB, Txina, Brasil, India eta Hego Afrikak sukaldatu zuten, azkenean Europar Batasuna ere hartara biltzeko. Sikulusaltsatik kanpo geratu ziren klimaren beroketak gehien kaltetuko dituen herrialdeak, nekazaritza arriskuan daukatenak, uhondeek edo lehorteek mehatxatutakoak. Aldiz, aberatsek hitzartzen dituzte karbono isuriaren kopuruak eta haien artean negoziatuko dituzte aurrerantzean karbonoaren salerosketa eta ordaintze sistemak.

Argigarria da Kubatik nola kontatu duen Fidel Castrok abenduaren 18tik 19rako gauean Kopenhagen

Kopenhageko International Club-ek Interneten daukan argazki honetan ageri dira Tuvaluk klimaren gailurrera bidalitako ordezkariak. Tuvalu lau uharte txikik osatzen dute eta denetara dauzkaten 26 kilometro karratueta 12.500 herritar bizi dira. Tuvalu itsasoaren mailan dago, muinorik altuena itsasgoratik 4,6 metrotaraino baizik iristen ez delarik, eta klimaren beroketak sakrifikatuko duen lehenbiziko herrialdea izanen da. Kopenhageko abenduko biltzarrean munduko estatu handienek hitzartu zuten azken agiriarekiko oso kritiko mintzatu zen Tuvaluren bozeramailea Ian Fry: “Bazirudien (Judasi Jesus saltzeagatik bezala) zilarrezko 30 txanpon eskaintzen ari zitzazkigula, gure jendea eta gure etorkizuna traizionatu genitzan”.

gertatua. *Juventud Rebelde* egunkariak plazaratu du, gero munduan beste gune askoz hedatzeko. Fidelek kontatu du nola biltzarreko lehendakaritza zeukan Danimarkak Barak Obamari entregatu zion areto nagusia, honi eta aurrez hautatutako 16 konbidaturi emanez hitz egiteko aukera. Gainerako 170 herrialdeek ez zeukaten entzutea besterik.

Orduan agertu zen aurreko egunetan batzarretik aparte herrialde sail batek egositako agiria. Hori ikusita, protestan hitza eskatzen lehena Evo Morales izan zen eta atzetik Hugo Chavez mintzatu zen ildo berean. Baina Castrok salatu duen konplota beranduxeago osatu zen, lehendakari eta gobernuburuek Kopenhagetik alde egin eta gero, estatu indartsuenek utzitako ordezkarien artean. Merezi du Fidel Castroren idatzia irakurtzea.

### Meles Zenawiren antzerkia

Ildo beretsuan ikusi ditu gauzak Naomi Kleinek, *The Nation* astekarian idatzi duenez: “Kopenhage, ezetz esateko adorea”. Kuba, Venezuelak eta Boliviaren ondoan 77 herrialdez osatutako taldeak azken ahaleginean lortu baitzuen hango ituna izenpetu barik geratzeko.

Gainerakoan oso ezkor mintzatu da Klein. “Klimaren aldaketarako Nazio Batuen biltzarreko bederatzi-



aipatzen dute batzuek, Kopenhagerako bidean Nicolas Sarkozy frantsesak egindako promesaren batzuk bestee. Baina zeren truke?

Kleinek aipatzen duen beste aditu batentzako, Mathew Stilwel-entzat, “une koloniala” da oraingoa. Une kolonial horietan munduko ondasunak banatu izan dituzte beti potentzia handiek, eta oraingoan libre geratzen zen azken ondasuna pribatizatu eta banatu dute: atmosfera. Alegia, eguratsa kutsatzeko ahalmena negoziatu dutela handiek.

Atzeko ganbaran horretan ari ziren bitartean, komunikabide nagusiek munduko herritarrei bestelako filma erakutsi diete, hots, presazkoa zela akordio bat eskuratzeari. Baina emaitza ikusirik, agian hobe zen astiroago joatea.

Alemayehu G. Marian irakasleak *Pambazukana* idatzi du: “Mila-miloi-ka dolar karbonozko dirutan etxeratzeko amets ez iritsi ziren ‘Afrikako ordezkariak’ Kopenhagera. Handik etxeratu dira aldatzeko promesa zozo batzuekin. Kopenhageko antzerkia bukatu denean, ‘Afrikako negoziatzaileak’ lezio on bat ikasi dute: nahi adina egin zezaketen putz Kopenhageko etxea eraisteko, baina klimaren aldaketa den antzokian ez dira morroiak besterik”.

Abenduaren 18an munduko agintariak, handienak bezala kaxkarrenak, *limousine* distiratsuetan aireportura zihoazela, honela mintzatu zen Britainia Handiko Greenpeaceko zuzendari nagusi John Sauven: “Kopenhageko hirian krimena gertatu da gau honetan; errudunak aireportura doaz ihesi”. ■

garren egunean, Afrika sakrifikatu zuten”. Ez dirudi esajerazioa, Desmond Tutu apezpikuak berak arriskua honela marraztu duenerako: “Berehala neurri ikaragarritzko hondamendiari egin beharko diogu aurre... mundu osoan bi gradu beroketa onartzeak Afrika kondanatuko du kiskaltzera eta inolako garapenik ez edukitzera”.

Inork hartzekotan afrikarrek hartu dute ipurdikoa Danimarkan. Aurreko hilabeteetan behin eta berriro esan eta zin egin zuten kontinente hartako ordezkari askok Afrikar Batasunaren babesean jokabide garbi eta sendoarekin zihoazela Kopenhagera. Afrique-Asie hilabetekari historikoaren gunean oraindik irakur daiteke: *Sommet de*

*Copenhague : Le front africain du refus.* Ez alferrik.

Bai Naomi Kleinek eta bai beste aditu batzuek, Afrikan zentratutako *Pambazuka Newsen* idatzi dutenek kasurako, errudun nagusizat Kenyako presidentea daukate, Meles Zenawi.

Duela hilabete gutxi Zenawi gogor mintzo zen: prest zeudela Afrikaren beharrak kontutan hartuko ez zituen inongo akordiorik onartu ez eta negoziaketatik alde egiteko, herrialde txiroek 400.000 milioi behar zituztela egoerari aurre egin ahal izateko... Nolaz onartu du gauzak gero alderantzizko bidetik joatea?

AEBetako diplomaziaren buru den Hillary Clintonen beso luzea



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,  
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Mikel Irizar

## Urte berrirako kontzertua

**I**tzaltzen ari dira Vienatik mundura zabaldutako Radetzky martxaren azken notak. Eta beste kontzertu bat hasten da orain, urte berriak izango duen soinu-bandarena, hain zuzen. Zein da tonua? Eta zein partitura? Izango al dugu txalo jotzeko motiborik, Vienen bildutako dotoreen antzera?

**KRISIA.** Hemendik abiatu behar da nahi-taez edozein konposizio, ze urtea beltz dator. Adierazle ekonomikoak hobetuz joango dira iazkoen aldean, baina gizarteak gainbehera jarraituko du: aurrekontu publikoak, gizarte laguntzak, langabezia... Horiek ez dute hobera egingo 2010ean. Sinfoniaren tonu orokorra iluna izango da.

**NORA EZA?** Urte zaharrak utzi dizkigunen artean, ez da makalena izan EAEko Jaur-larritza aldaketa. Eta ondorio zuzenetik harago (mapa, sin-bolo eta abarrak) zenbaten-gan sumatzen da halako ikara, umezurtz gelditu bailiran. Batzuek agintearen probetxua galdu dute, baina askorentzat zerbait garrantzitsuagoa eskualdatu da: itsasontziaren lema. Eta ez dago argi zein den Titanic hau ondoratzeari dagokion partitura.

**AURKIKUNTZA.** Bada ohartu berri denik mende asko daraman prozesu batez, alegia Espainiaren jardun sistematikoa bere aginte-esparruko nortasunak asimilatze-ko. Gaztelania euskararen edo katalanaren gainetik jartzearena, edota espainiar herriaren subiranotasuna bakartzat jotzearena ez dira Zapateroren asmakizunak. Galdetu bestela zure aitonen aitonei. Egia da Aznarrek hauspo berria eman ziola espainiar partiturari eta Zapaterok nota guztiekin bereganatu duela, baina melodia hori zaharra da, oso zaharra.

**KONTRADANTZA.** Txalapartaren soinu gogorrekin hasten da eta ezpata-dantzatik ere badu beti kontrara jotzen den euskal



DANI BLANCO

doinuak. Asimilazioari aurre egiteko balio izan du neurri batean, baina sinfonia unibertsala indartsua da eta Espainiako bandak ozen jotzen du pasodoble erritmoan; gero eta zailago izango da hainbeste zarata artean nota diskordanteak entzunaraztea. Are gehiago euskal doinua desafinatu-tuz jotzen bada, disonantzia askorekin.

**KANTATA.** Euskaraz, beste hizkuntzetan ez bezala, musika jo egiten da. Agian, Juan Mari Beltranek iradoki berri duenez, txalaparta delako lehen musika tresna? Edonola ere, nago joka nekez egingo duela bide gure musikak, bereziki Estras-burgoko aretoetan. Alde horretatik euskaldunok kontzertu globalean parte hartzeko aukera hobea dugu kantua: melodia oinarritzkoa, armonia txukunak, *crescendo* ongi neurtua, eta *finale* indartsua.

Kontradantza txalapartaren soinu gogorrekin hasten da eta ezpata-dantzatik ere badu beti kontrara jotzen den euskal doinuak. Asimilazioari aurre egiteko balio izan du neurri batean, baina sinfonia unibertsala indartsua da eta Espainiako bandak ozen jotzen du pasodoble erritmoan

**LIBRETOA.** Kantuan onak bagara, erriman hobeak. Badi-ra gurean errimak bat-batean sortzeko gai diren poetak, batzuk goi mailakoak. Eta asko estimatzen dugu haien lana eta saldoka joaten gatzazkie entzutera eta txalotzera. Haiek idatz dezakete libreto bikaina, non azpimarra daitezkeen “bakea ez baita gerrarik eza, gerrarik nahi eza baizik”, edota “herri hau sortzen segi deza-gun euskaratik eta euskaraz” bezalako lelo unibertsalak.

**ABESBATZA.** Milioika tresnez osatua dago orkestra globala. Horien artean kantua entzungo bada, abesbatzak behar du handia eta ondo afinatua. Baina pentsatzen jarrita, bigarrenak berez dakar lehena: jarri doinu bat ezaguna eta samurra, libreto bat konpartitzen ditugun ideiekin, banatu tonuak eztarrien arabera eta adostu gidari bat. Gauza segurua da jende andana inguratuko garela eta kantu indartsuan bilduko. Gertatu izan da orain baino lehen, ez gara beti hain alproja ibili.

Gabonetako ipuina? Sasoiari dagokio. ■

# ASTE HONETAKO zozketak




## Atxaspi Hotela

Asteburu pasa  
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24  
Lesaka, NAFARROA

[www.atxaspi.com](http://www.atxaspi.com)

1



## Etxe heldu eskutik

3 CD opari

Baga Biga

[www.baga-biga.com](http://www.baga-biga.com)

2



THE DIRTY  
PINK LADIES  
Sunrise Orchestra


## The Dirty Pink Ladies Sunrise Orchestra

2 CD opari

Soraluze GIPUZKOA

[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

3



## Istilu banaketak

4 arropa sorta

Kalamua 25, behea  
Elgoibar GIPUZKOA

4



## Nairobitarra

2 mahai jolas opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

### SAUSTA JATETXEA

- Julen Goia Eraunzetamurgil (Donostia)

### DES-KONTROL

- Alaitz Katarain Azaldegi (Idiazabal)
- Iñaki Goñi Irazusta (Donostia)
- Ana M. Zubiarrementeria Olañeta (Eibar)

### KIROLAZ BADAKIT

- M. Carmen Otxotorena Huizi (Hernani)
- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)
- Patxi Xabier Erezkano Mardaraz (Bilbo)

### EUSKAL BURDINAREN MUSEOA

- Imanol Irigoien Aranberri (Oñartzun)
- Artez Euskara Zerbitzua (Bilbo)
- Arantza Andonegi Garcia (Elgoibar)
- Joseba Etxebarria Uriarte (Larrabetzu)


### OLABERRIA

- Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)
- Josu Aldama Larena (Bitoriano, Zuia)
- Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)
- Maritxu Dorronsoro Arostegi (Lazkao)
- Lema Team Consultores (Donostia)

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com) • [www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)



**RITXI LIZARTZAK**  
garatutako liburua

## **ESKURA EZAZU**

liburudendetan

[www.gara.net](http://www.gara.net)-en edo

**943 316999** telefonoan

168 orrialde

Hika egiten dakitenentzat  
baliagarria eta egiten ez  
dakitenentzat erraz ikasteko tresna

# **HIKA ongi egiten ikas EZAN/ K**

